| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1125 EUSKADIKO AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA | *1125 COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERO DE RÉGIMEN JURÍDICO* |

## HELBURUA

1. KONTSULTA EGINKIZUNA BETETZEA

2. BATZORDEAREN JARDUERA ETA DOKTRINA ZABALTZEA

## *OBJETIVO*

*1. EJERCICIO DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*

*2. DIVULGACIÓN DE LA ACTIVIDAD Y DOCTRINA DE LA COMISIÓN*

## BETETZE MAILA

1. KONTSULTA EGINKIZUNA BETETZEA

2022.ean, 285 kontsulta-eskari sartu dira kontsulta-organo honen idazkaritzan. Horietatik 8 ez ziren izapidetzeko onartu eta 26 itzuli dira, organo kontsulta-egileak berak eskatuta batzuk, eta Batzordearen ekimenez beste batzuk (garrantzizko hutsuneak ikusi direlako espedienteen tramitazioan, eskariek forma-akatsak zituztelako, edota batzordearen eskumenekoak ez zirelako). Era berean, 288 idazki jaso dira, bidalitako espedienteen dokumentazioa osatze aldera, baita 77 jakinarazpen edo komunikazio ere, irizpena jaso duen gaian emandako behin betiko ebazpenaren berri emateko.

Batzordeak, bere aldetik, dokumentazioa zabaltzeko 4 eskari izapidetu ditu, izapidetzeko onartu diren kontsultak direla eta.

Batzordearen osoko bilkurak 40 saio egin ditu: gai-zerrendak egin dira, eta dagokion dokumentazioa prestatu, baita batzordeko kideei banatu ere.

Onartu eta jakinarazitakoak: 8 erabaki eta 240 irizpen (34, xedapen orokorrei buruzkoak, eta 206, berriz, administrazio-egintzen gainekoak).

2. BATZORDEAREN JARDUERA ETA DOKTRINA ZABALTZEA

2021. urteko memoria prestatu da, eta formatu elektronikoan bakarrik editatu; hain zuzen ere, Batzordearen web orriaren bitartez jarri da herritarren eta erakunde publikoen esku.

Era berean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren webgunean eguneratu dira Batzordearen irizpenen eta doktrinaren datu-baseak.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. EJERCICIO DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*

*Durante 2022 han tenido entrada en la secretaría de este órgano consultivo 285 solicitudes de consultas. De ellas, 8 fueron inadmitidas a trámite y 26 fueron devueltas, ya sea por propia solicitud del órgano consultante o a iniciativa de la propia Comisión (al detectar importantes carencias en la tramitación de los expedientes, por defectos formales en la solicitud o por no ser de su competencia). Asimismo, se han recibido 288 escritos ampliando la documentación de los expedientes remitidos y 77 comunicaciones de la resolución definitiva recaída en el asunto dictaminado.*

*Por su parte, la Comisión ha tramitado 4 solicitudes de ampliación de documentación relacionadas con las consultas admitidas a trámite.*

*Se han elaborado los órdenes del día, y se ha preparado y repartido a los miembros de la Comisión la documentación correspondiente, para las 40 sesiones que ha celebrado el Pleno.*

*Se han aprobado y notificado 8 acuerdos y 240 dictámenes (34 sobre disposiciones generales y 206 sobre actos administrativos).*

*2. DIVULGACIÓN DE LA ACTIVIDAD Y DOCTRINA DE LA COMISIÓN*

*Se ha preparado y editado únicamente en formato electrónico la memoria del año 2021, poniéndola a disposición de la ciudadanía y de las instituciones públicas a través de la Web de la Comisión.*

*Asimismo, se han actualizado en la página web de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi las bases de datos de dictámenes y de la doctrina de la Comisión.*

**PROGRAMA**

1211 GOBERNANZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO EGITURA ETA LAGUNTZA

**ARDURADUNA**

04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA SAILBURUA

***PROGRAMA***

*1211 ESTRUCTURA Y APOYO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

***RESPONSABLE***

*04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

*CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

## HELBURUA

1. GARAPEN AUTONOMIKOA INDARTZEA ETA AZTERTZEA
2. HERRITARREI ADMINISTRAZIO IREKI, HURBIL, ERAGINKOR, GARDEN, BERDINTASUNEKO, PARTE-HARTZAILE ETA BERRITZAILE BATEN IRUDIA HELARAZTEA
3. SAILEAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK EZARTZEN AURRERA EGITEA
4. SAILAREN GAINEKO PROGRAMEN BERARIAZKO HELBURUAK LORTZEKO BEHAR DEN LAGUNTZA HOBETZEA
5. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA HANDIAGOA SUSTATZEA
6. SAILEKO ESTATISTIKEN USTIAPENA ETA ZABALKUNTZA HOBETZEA BERDINTASUNERAKO AGINDUAK BETEZ

## *OBJETIVO*

1. *IMPULSAR Y ANALIZAR EL DESARROLLO AUTONÓMICO*
2. *TRASLADAR A LA CIUDADANÍA LA IMAGEN DE UNA ADMINISTRACIÓN ABIERTA, CERCANA, EFICAZ, TRANSPARENTE, IGUALITARIA, PARTICIPATIVA E INNOVADORA*
3. *AVANZAR EN LA IMPLANTACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN EL DEPARTAMENTO*
4. *MEJORAR LA PRESTACIÓN DEL APOYO NECESARIO PARA LA CONSECUCIÓN DE LOS OBJETIVOS ESPECÍFICOS DEL RESTO DE PROGRAMAS DEL DEPARTAMENTO*
5. *FOMENTAR UN MAYOR USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO*
6. *MEJORAR LA EXPLOTACIÓN Y DIFUSIÓN ESTADÍSTICA DEPARTAMENTAL CUMPLIENDO CON MANDATOS DE IGUALDAD*

## BETETZE MAILA

1. GARAPEN AUTONOMIKOA INDARTZEA ETA AZTERTZEA

Autogobernu Zuzendaritzan, legeriari, jurisprudentziari eta doktrinari buruzko 32 txosten egin dira; 2 jurisprudentzia-iruzkin; 2 akordio-proposamen, Gobernu Kontseiluak onar ditzan; 1 Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoari egindako transferentzia, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa. Halaber, 3 eskualdatze proposamen bidali zaizkio Estatuko Gobernuari.

Sailburuak parte hartu du sailak antolatutako autogobernuari buruz hausnartu eta hura gizarteratzeko jardunaldietan.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

1. *IMPULSAR Y ANALIZAR EL DESARROLLO AUTONÓMICO*

*En la Dirección de Autogobierno se han realizado 32 informes sobre legislación, jurisprudencia y doctrina; 2 comentarios jurisprudenciales, 2 Propuestas de Acuerdo para su aprobación por el Consejo de Gobierno, 1 Transferencia del Estado a la Comunidad Autónoma Vasca relativa al Ingreso Mínimo Vital. Además, se han remitido 3 propuestas de traspaso al Gobierno del Estado.*

*La Consejera ha participado en las jornadas de reflexión y socialización del Autogobierno organizadas por el Departamento.*

2. HERRITARREI ADMINISTRAZIO IREKI, HURBIL, ERAGINKOR, GARDEN, BERDINTASUNEKO, PARTE-HARTZAILE ETA BERRITZAILE BATEN IRUDIA HELARAZTEA

2022an, sailburua Gobernu Kontseiluaren 46 bilerara bertaratu da.

Sailburua, guztira, 2 prentsaurrekotan azaldu da, ele bietan, eta hizkuntza inklusiboa erabiliz.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuak 18 agerraldi izan ditu Eusko Legebiltzarrean ( interpelazio 1, 10 ahozko galdera osoko bilkuran, 5 agerraldi legebiltzar-batzordeetan eta beste 2 agerraldi osoko bilkuran), ele bietan, eta hizkuntza inklusiboa erabiliz.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburuak eta Saileko beste goi-kargudunek ere, 2022. urtean zehar, 111 ekitaldi publikotan parte hartu izan dute, erakundearen ordezkari zereginetan.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Sailburua, 2021ean, 10 aldiz agertu da komunikabideen aurrean. Agerraldietan, Gobernuaren politikak azaldu ditu, beraren eskumeneko gai guztiei lotuta, ele bietan, eta hizkuntza inklusiboa erabiliz.

Lan horri gehitu beharko zaizkio irratian eta telebistan egin diren 14 elkarrizketa, bai eta egunkarietarako eta aldizkarietarako egin diren 4 elkarrizketa gehiago ere. 2022an bi prentsaurreko egin dira. Halaber, 90 prentsa-ohar prestatu dira, horiek denak hizkuntza inklusiboan idatziak, eta guztiak ele bietan, sexuaren arabera bereizitako datuak jaso ditu.

226 barruko koordinazio-bilera egin dira, gehienak, euskaraz. Irudi korporatiboaren eta / edo argitaratutako informazioaren jarraipeneko ekintzen kopurua 84koa izan da. Publizitateari buruzko Sail-arteko Batzorderen bileren kopurua 12 izan da.

Sare sozialen eta webgunearen bidez 180 gairen berri eman da, eta kanal propioetara egindako 70.000 bisita baino gehiago zenbatu dira.

*2. TRASLADAR A LA CIUDADANÍA LA IMAGEN DE UNA ADMINISTRACIÓN ABIERTA, CERCANA, EFICAZ, TRANSPARENTE, IGUALITARIA, PARTICIPATIVA E INNOVADORA*

*A lo largo del ejercicio 2022, la Consejera ha asistido a los 46 Consejos de Gobierno celebrados.*

*La Consejera, han comparecido, en total, en 2 ruedas de prensa, en ambas lenguas, y atendiendo al lenguaje inclusivo*

*La Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno ha comparecido en 18 ocasiones en el Parlamento Vasco (1 interpelación, 10 preguntas orales en pleno, 5 comparecencias en comisiones parlamentarias y otras 2 comparecencias en pleno), en ambas lenguas, y atendiendo al lenguaje inclusivo.*

*La Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, así como otros Altos Cargos del Departamento, han participado durante 2022 en un total de 111 actos públicos en labores de representación institucional.*

*La Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, a lo largo del año 2021, ha comparecido ante los medios de comunicación en 10 ocasiones explicando las políticas del Gobierno en todas aquellas materias que son de su competencia, en ambas lenguas, y atendiendo al lenguaje inclusivo.*

*Esta labor divulgativa se ha visto reforzada con las 14 entrevistas realizadas en radio y televisión y en otras 4 entrevistas realizadas en prensa escrita en Diarios y Revistas. En 2022 se han celebrado 2 ruedas de prensa. Se han elaborado 90 notas de prensa todas ellas redactadas, en ambas lenguas, y con lenguaje inclusivo, recogiendo datos desagregados por sexos.*

*Se han celebrado 226 reuniones internas de coordinación, la mayoría de ellas en euskera. El número de acciones de seguimiento a la imagen corporativa y/o la información publicada ha ascendido a 84. Han tenido lugar 12 reuniones de la Comisión Interdepartamental de publicidad.*

*A través de redes sociales y página web se han comunicado 180 asuntos y se han contabilizado más de 70.000 visitas a canales propios.*

3. SAILEAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK EZARTZEN AURRERA EGITEA

Berdintasun-planek datozen urteetan berdintasunaren arloan egingo diren ekintzak jasotzen dituzte. Horregatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bere berdintasun-plana diseinatu du, 2022tik 2024ra egingo diren ekintzak jasotzen dituena. Sailaren berdintasun-plana egiteko, partaidetza-prozesu bat abian jarri da, indarrean dauden ekimenak ebaluatzeko eta proposamen berriak jasotzeko. Prozesu hau Saileko Talde Teknikoaren bidez bultzatu da. Saileko zuzendaritzek eta hari atxikitako erakundeek ere parte hartu dute prozesu horretan. Plan hori zabaltzeko, azalpen-bideo bat eta egutegi bat diseinatu dira, eta saileko langile guztiei banatu zaizkie.

*3. AVANZAR EN LA IMPLANTACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES EN EL DEPARTAMENTO*

*Los planes de Igualdad recogen las acciones que se van a llevar a cabo en los próximos años en materia de igualdad. Por ello, el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno ha diseñado su plan departamental de igualdad, que recoge las acciones que se llevarán a cabo desde 2022 a 2024. Para elaborar el plan de igualdad del departamento, se ha puesto en marcha un proceso participativo para evaluar las iniciativas vigentes y recoger también nuevas propuestas. Este proceso se ha impulsado a través del GTD (Grupo Técnico departamental). También han participado en este proceso las direcciones del departamento, así como los entes adscritos al mismo. Para realizar la difusión de dicho plan se ha diseñado un vídeo explicativo y un calendario, que se han repartido a todo el personal del departamento.*

Era berean, Administrazio Publikoan emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostikoa amaitu da, eta prestakuntza-ekintza bat garatu da Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. planaren ekintzak diseinatzeko eta aurreko planean hartutako neurriak finkatzeko, baita ere, egiteke dauden neurriak berrikusteko. Diagnostikoa eta plana egiteko, partaidetza-prozesu bat egin da, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorraren bidez.

*De la misma manera, también se ha finalizado el diagnóstico de la situación de mujeres y hombres en la Administración Pública, y se ha desarrollado una formación-acción para diseñar las acciones del II Plan para la Igualdad entre mujeres y hombres en la Administración General y sus OOAA, con el objetivo de consolidar las medidas adoptadas en el plan anterior, revisando las medidas pendientes para continuar con su implementación. Para la elaboración tanto del diagnóstico como del plan se ha llevado a cabo un proceso participativo a través de la Comisión Permanente de Igualdad.*

Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030erako estrategiari dagokionez, planaren 1.5.2 neurria eguneratzeko behar diren datuak aztertu dira: "Emakumeek sektore publikoko zuzendaritza-postuetan eta administrazio-kontseiluetan duten presentziari buruzko azterlana", eta datu horiek eskatu zaizkie erakundeei eta entitateei.

*En cuanto la estrategia 2030 para reducir la brecha salarial en Euskadi, se han analizado los datos necesarios para actualizar la medida 1.5.2. del plan: "Estudio de la presencia de mujeres en puestos de dirección y consejos de administración del sector público", y se han pedido estos dados a los diferentes organismos y entidades.*

2022an hainbat prestakuntza-ekintza egin dira. Alde batetik, ikastaro bat antolatu da aholkularitza juridikoetako langileentzat, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeko, otsailaren 18ko, 4/2005 Legean izandako aldaketak ezagutzeko, eta txosten juridikoetan genero-ikuspegia txertatzeko.

*Durante el año 2022 se han realizado diferentes acciones formativas. Por un lado, se ha organizado un curso dirigido al personal de las asesorías jurídicas, con el objetivo de conocer los cambios habidos en la ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y de incorporar la perspectiva de género en los informes jurídicos*

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen esparruan sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzko protokoloan jarduten duten alderdi guztiei zuzendutako prestakuntza espezializatua ere egin da, hau da, ikerketa-batzordeko eta aholkularitza konfidentzialeko kide diren langileei zuzendutako prestakuntza. Halaber, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrari zuzendutako prestakuntza-ekintza bat ere egin da, berdintasun-planak egiteari buruzkoa.

*También se ha realizado una formación especializada dirigida a todas las partes que actúan en el Protocolo de acoso sexual y por razón de sexo en el ámbito de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos: es decir, con el personal que formará parte tanto de la comisión de investigación como de la asesoría confidencial. Así como, una formación-acción dirigida a la Comisión Permanente de Igualdad sobre la elaboración de planes de igualdad.*

Berdintasunaren arloko sentsibilizazio-kanpainak (martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna; eta azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) Emakunderen kanpainetan oinarritu dira, eta saileko langileekin partekatu dira, baita Jakinaren bidez ere. Era berean, Eusko Jaurlaritzako liburutegiarekin lankidetzan, gai desberdinak dituzten liburuen zerrendak prestatu dira Eusko Jaurlaritzako langileentzat. Halaber, hainbat jarduera egin dira otsailaren 11n (Emakumearen eta Neskatoaren Nazioarteko Eguna Zientzian), maiatzaren 17an (LGTBI Fobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna) eta ekainaren 28an (LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna).

*Las campañas de sensibilización en materia de igualdad (8 de marzo- Día Internacional de las Mujeres y 25 de noviembre-Día Internacional para la Erradicación de la Violencia Contra las Mujeres-) se han basado en las campañas de Emakunde y se han compartido con el personal del departamento y a través de Jakina. También se han elaborado, en colaboración con la biblioteca del gobierno vasco, listados de libros con temáticas diferentes disponibles para los y las trabajadoras del gobierno vasco. También se han realizado diferentes actividades el 11 de febrero (Día Internacional de la Mujer y la Niña en la Ciencia), el 17 de mayo (Día Internacional Contra la LGTBI fobia) y el 28 de junio (Día Internacional del Orgullo LGTBI).*

Plangintza- eta ebaluazio-ekintza horiek, sailetako arloetan berdintasun-politiken ezarpena bultzatzeari eta koordinatzeari dagokionez, adierazle hauetan islatzen dira:

*Estas acciones de planificación y evaluación en lo que respecta al impulso y coordinación de la implantación de las políticas de igualdad en las áreas departamentales se traducen en los siguientes indicadores:*

- 40 bilera egin dira sail barruan (Saileko Talde Teknikoak berdintasunerako sailaren planari buruz egindako bilerak, Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrak Administrazio Orokorraren berdintasun-planari buruz egindako bilerak eta saileko berdintasun-teknikarien bilerak).

- *El número de reuniones intradepartamentales (las mencionadas reuniones del Grupo Técnico Departamental en torno al plan departamental de igualdad, reuniones de la Comisión Permanente de Igualdad en torno al plan de igualdad de la Administración General, y reuniones de las técnicas de igualdad del departamento) ha sido 40.*

- Sail arteko eta erakunde arteko bilerak (Batez ere, Emakundek zuzendutakoak) 14 izan dira.

- Plangintza-dokumentu gehienak, batez ere, lehen aipatutako hiru jardueren ingurukoak dira. Guztira, 13 jarduera izan dira: Saileko nahiz Administrazio Orokorreko berdintasun-plana planifikatzea eta sektore publikoko zuzendaritza-postuetan eta administrazio-kontseiluetan emakumeek duten presentziari buruzko azterlana eguneratzeko beharrezkoak diren datuei buruzko azterlana, baita prestakuntza-ekintzen eta sentsibilizazio-ekintzen plangintzekin lotutakoak ere.

- 23 ebaluazio-dokumentu prestatzeko lan egin da, gehienak aipatutako zeregin nagusiekin lotuta: saileko planaren jardueren ebaluazioari buruzko diagnostikoak, administrazio orokorreko emakumeen eta gizonen egoerari buruzkoak eta saileko zein administrazio orokorreko zuzendaritza-postuetan emakumeek duten presentziari buruzkoak. Halaber, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planaren ebaluazioari buruzko hainbat dokumentu, berdintasunerako legea, kontratuetako berdintasun-klausulak eta abar.

- *El número de reuniones interdepartamentales e interinstitucionales (en su mayoría se corresponden con reuniones dirigidas por Emakunde) ha sido 14.*

- *La mayoría de los documentos de planificación giran sobre todo alrededor de las tres actuaciones comentadas anteriormente, haciendo un total de 13: planificación del plan de igualdad tanto departamental como de la administración general y el estudio sobre los datos necesarios para la actualización del estudio de la presencia de mujeres en puestos de dirección y consejos de administración del sector público, además de los relacionados con las planificaciones de las acciones formativas y de las de sensibilización.*

- *Se ha trabajado en la preparación de 23 documentos de evaluación, relacionados en su mayoría con las tareas principales mencionadas: los diagnósticos sobre la evaluación de las actuaciones del plan departamental, así como de la situación de mujeres y hombres en la administración general y sobre la presencia de mujeres en puestos de dirección tanto en el departamento como en la administración general. Así como, diferentes documentos sobre la evaluación del plan de igualdad de mujeres y hombres de la CAE, ley de igualdad, cláusulas de igualdad en los contratos, etc.*

Sailetako zuzendaritzei eta arloei berdintasun-politikak ezartzeko aholkularitza emateko, 50 aholkularitza-bilera egin dira, eta 30 berrikuspen edo aholkularitza-txosten egin dira.

*Para asesorar a las direcciones y áreas departamentales en la implementación de las políticas de igualdad se han celebrado 50 reuniones de asesoramiento y se han emitido 30 revisiones o informes de asesoramiento.*

4. SAILAREN GAINEKO PROGRAMEN BERARIAZKO HELBURUAK LORTZEKO BEHAR DEN LAGUNTZA HOBETZEA

*4. MEJORAR LA PRESTACIÓN DEL APOYO NECESARIO PARA LA CONSECUCIÓN DE LOS OBJETIVOS ESPECÍFICOS DEL RESTO DE PROGRAMAS DEL DEPARTAMENTO*

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean 516 langilek jarduten dute (2022ko uztailean), 329 emakume eta 187 gizon; hortaz, langileria administratzeko, txosten ugari izapidetu behar izan dira: lanpostuak betetzeko, lizentziak eta baimenak emateko, langileek egindako galderei erantzuteko. Gainera, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak kudeatzen dituen hainbat prozesutan elkarlanean aritu gara, horien artean SAP moduluen jarraipena egiteko erabiltzaile gisa, besteak beste, Gepeizu, denbora-kudeaketarako modulua, organizazio-egitura, etab.

*La administración de la plantilla de personal del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, que hace un total de 516 personas, 329 mujeres y 187 hombres (a fecha de julio de 2022), han supuesto la tramitación de un gran número de expedientes de provisión de puestos, licencias, permisos, atención a las consultas formuladas por la plantilla. También se ha colaborado en diferentes procesos gestionados por la Viceconsejería de Función Pública, entre ellos el seguimiento, como usuario, del funcionamiento de varios módulos de SAP: Gepeizu, tiempos, estructura organizativa etc.*

Langileen prestakuntzaren arloan ikastaroak, jardunaldiak, mintegiak eta abarrak koordinatu dira.

*En lo que respecta a la formación del personal, se han coordinado y gestionado cursos, jornadas, seminarios.*

2022. urtean zehar, saileko emakumeek egin dituzten prestakuntza ikastaroen kopurua 184ekoa izan da (IVAPeko ikastaroak eta bestelakoak); gizonezkoek egindakoak, berriz, 74 izan dira. Bestaldetik 44 emakumek eta 11 gizonek IVAPek antolatutako berdintasunerako ikastaroetan parte hartu dute.

*Durante el año 2022 el número de cursos de formación (del IVAP y otros) realizados por las mujeres del departamento ha ascendido a 184, mientras que el número de los cursos realizados por los hombres del departamento ha sido 74. Por otro lado, un total de 44 mujeres y 11 hombres han participado en cursos de igualdad impartidos por el IVAP.*

Aurrekontuen esparruan, aurreko urteetan bezala, urtarrilean, 2021. Urteko helburuen betetze-mailari buruzko memoriak egin ziren, saileko zerbitzuekin koordinatuta.

*En el ámbito presupuestario, durante el mes de enero se procedió, como en años anteriores, a la confección de las memorias del grado de cumplimiento de los objetivos programados para 2021, todo ello en coordinación con los diversos servicios del departamento.*

2022ko hirugarren lauhilekoan, 2023ko ekitaldiko aurrekontuen aurreproiektua egiteko lanak egin ziren.

*En el tercer cuatrimestre del ejercicio 2022 se han realizado los trabajos para la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos para el ejercicio 2023.*

2022ko ekitaldian zehar, Sailaren aurrekontua prestatzerakoan generoaren ikuspegia Saileko zerbitzuetan kontuan hartu izan dezaten lanak egin dira, 2018ko ekitaldian ekin genion ildoari jarraituz. Horretarako, Saileko programen memorien berridazketa koordinatu izan da, PGEN formularioak modu eraginkorrean bete ahal izateko, formulario hauek baitira aurrekontuen generoaren ikuspegia aztertzeko erabiltzen den tresna. Sailean 4 aurrekontu-memoria prestatu dira berdintasun alorreko mandatuekin.

*En el ejercicio 2022 se ha continuado en la senda de la inclusión del enfoque de género en la elaboración del presupuesto del Departamento, iniciado en el ejercicio 2018. Para ello se ha continuado con la coordinación de la reformulación de las memorias de los programas del Departamento, para poder completar eficazmente los formularios PGEN, que constituyen la herramienta utilizada para el análisis de la perspectiva de género en los presupuestos. En el departamento se han presentado 4 memorias presupuestarias con mandatos de igualdad.*

Aurrekontua betetzeko, eta haren jarraipena eta kontrola egiteko, oinarrizkoa izan da gastu-zentroetako arduradunek eta Zerbitzu Zuzendaritzako arduradunek ondo koordinatzeko egin duten lana, sailean betetze-maila oro har aztertu baitute, sailean sortutako kontabilitate agiri guztiak izapidetuz, eta dagoen informatikako aplikazioren bidez (EIKA) datuak sartuz eta aztertuz. 30 txosten prestatu dira, aurrekontuaren betetze mailarekin.

*La ejecución, seguimiento y control del presupuesto se ha basado principalmente en una buena coordinación entre los distintos responsables de los centros de gastos y de la Dirección de Servicios, donde se ha tenido una visión global de la ejecución departamental, gracias a la tramitación de toda la documentación contable generada en el departamento y a la introducción y análisis de sus datos a través de la aplicación informática de EIKA. Se han preparado 30 informes de ejecución.*

2022an, 4.564 faktura kudeatu dira guztira, eta horietatik 1.890 funtsengatik ordaindu dira (%41,4), eta faktura hauen bitartez ordaindutako zenbateko osoa, departamentuko faktura guztien bidez ordaindu den % 1,60ri dagokio. Fakturen % 48,10 (2.196) dagozkien kontabilitate-agirien bidez ordaindu dira, eta sailean fakturen bidez egindako ordainketa kopuru osoaren % 98,40a izan dira.

*Durante 2022 se han gestionado un total de 4.564 facturas, de las que se han pagado por fondos 1.890 (41,4%) por un importe que se corresponde con el 1,60% del importe total de pagos de facturas en el departamento. El 48,10% de las facturas (2.196) se han pagado a través de los correspondientes documentos contables y han supuesto el 98,40% del importe pagado en facturas durante el año 2022 en el departamento.*

Funtsen fakturak ordaintzeko, funts aurreratuen 43 banku-transferentzia egin dira 2022an.

*Para el pago de facturas por fondos durante el año 2022 se han realizado 43 transferencias bancarias de fondos anticipados.*

Gobernantza Sailean guztira 3.367 kontabilitate-espediente izapidetu dira.

*En el Departamento se han tramitado un total de 3.367 expedientes contables.*

Aholkularitza juridikoaren esparruan, 2022. urtean egin diren arau-xedapenen, txosten juridikoen, kontsulten ebazpenen eta administrazio-ekintzen kopuruak hauexek izan dira:

- Xedapen orokorrak egitea

  Xedapen arautzaileen guztizko kopurua: 1

- Txosten juridikoak egitea eta kontsultak ebaztea

  1.- Txosten juridikoen guztiko kopurua: 68

  Horietatik 6k dekretu-proiektuei buruzko txosten juridikoak egitea izan dute helburu; 26k agindu-proiektuei buruzko txosten juridikoak izan dira; 3k diru-laguntza izendunak emateko agindu-proiektuei buruzko txostena egitea izan dute helburu; 1ek zuzeneko diru-laguntzak emateko Gobernu Kontseiluaren akordio-proposamen bati buruz; Gobernu Kontseiluak askotariko ekimenei buruz egindako akordio-proposamenei buruzko 18 izan dira; bitarteko propioei egindako enkarguei buruzko txosten juridikoak 7 izan dira ; eta lankidetza-hitzarmenak sinatzeko egindako txostenak 7 izan dira.

*En el ámbito de la asesoría jurídica, durante el año 2022, las disposiciones normativas elaboradas, los informes jurídicos emitidos, consultas resueltas y actos administrativos elaborados ascienden a:*

- *Elaboración de disposiciones de carácter general*

  *Número total de disposiciones normativas: 1*

- *Emisión de informes jurídicos y resolución de consultas*

  *1.- Número total de informes jurídicos: 68*

  *De ellos 6 ha tenido por objeto la elaboración de informes jurídicos sobre proyectos de Decreto; 26 han sido informes jurídicos sobre proyectos de Ordenes; 3 han tenido por objeto el informe de proyectos de Orden para la concesión de subvenciones nominativas; 1 sobre una propuesta de Acuerdo del Consejo de Gobierno para la concesión de subvenciones directas; 18 acerca de propuestas de Acuerdo del Consejo de Gobierno sobre iniciativas de diversa índole; 7 han sido informes jurídicos sobre encargos a medios propios y 7 han sido informes elaborados para la suscripción de convenios de colaboración.*

2.- Kontsulten guztiko kopurua: 185

35 kontsulta juridiko informatu dira, eta gainerako 150 gaietan laguntza eman da zuzendaritzek eta saileko beste organo batzuek eskatutako gai zehatzetan.

- Administrazio-egintzak egitea

Aginduen eta ebazpenen kopuru osoa: 98

4 administrazio-errekurtsoei buruzko Aginduak edo Ebazpenak izan dira; hainbat gaitan laguntzeko egin diren aginduak 2 izan dira; kide anitzeko organoetan saileko ordezkariak izendatzeko administrazio-egintzak 3 izan dira; ondare-erantzukizunaren arloan ebatzitako espedienteak 1 izan da, eta 88 informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen inguruan izapidetutako espedienteak.

- Aholkularitza juridikoa berdintasun-aginduak azpimarratuz

Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen kopurua: 1

- 57/2022 DEKRETUA, maiatzaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren kidego berezien eskalen funtzioak ezarri, espezialitateak arautu eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren Espezialitatea sortzen duena.

Kontratazioaren esparruan, saileko kontratazio-mahaiaren aholkularitza juridikoa eta idazkaritza garatu dira, eta zuzendaritzek eskatutako kontratazio-espedienteak izapidetu, esleitu eta formalizatu egin dira, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan kokatutako kontratazio-organo egokirako. Honako izapide hauek egin dira:

- Kontratu handiak - hornidurak: 2
- Kontratu handiak - zerbitzuak: 8
- Kontratu txikiak: 8
- Intzidentziak: 2
- Luzapenak: 7
- Errekurtsoak: 4
- Aldaketak: 3

Informatika atalaren barruan, 669 erabiltzaileren informatika-beharrizanak kudeatu ditugu, eta zeregin profesionalak burutzeko behar zituzten ekipoak eman zaizkie. Ekipo horietatik (ordenagailuak, inprimagailuak, eskanerrak,...):

- 1.565 eskuratu dira renting-kontratu baten bitartez, Eusko Jaurlaritzak EJIEri egin dion agindu orokorraren barruan baitago.
- 43 funtzio anitzeko ekipoak (fotokopiagailuak) rentingean daude (EJIEtik kanpoz) .

*2.- Número total de consultas: 185*

*35 han sido las consultas jurídicas informadas y en los 150 asuntos restantes se ha prestado asistencia en cuestiones puntuales requeridas por las direcciones y otros órganos del Departamento.*

- *Elaboración de actos administrativos*

*Número total de órdenes y resoluciones: 98*

*4 han sido Órdenes o Resoluciones sobre recursos administrativos; 2 Órdenes se han elaborado para asistir en asuntos diversos; 3 han sido actos administrativos de designación de representantes del departamento en órganos colegiados; 1 ha sido el expediente resuelto en materia de responsabilidad patrimonial y 88 los expedientes tramitados en relación con el derecho de acceso a la información pública.*

- *Asesoramiento jurídico incidiendo en mandatos de igualdad*

*Número de normas que incluyen medidas para promover la igualdad: 1*

*- DECRETO 57/2022, de 3 de mayo, por el que se establecen las funciones de las escalas de los cuerpos especiales de la Administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se regulan las especialidades y se crea la Especialidad en Igualdad de Mujeres y Hombres.*

*En el ámbito de la contratación, se ha desarrollado la función de asesoramiento jurídico y secretaría de la mesa de contratación del departamento, y se ha tramitado, adjudicado, incluida su formalización, para el correspondiente órgano de contratación ubicado en la Dirección de Servicios del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, los expedientes de contratación instados por las distintas direcciones, habiéndose tramitado:*

- *Contratos mayores de suministros: 2*
- *Contratos mayores de servicios: 8*
- *Contratos menores: 8*
- *Incidencias: 2*
- *Prórrogas: 7*
- *Recursos: 4*
- *Modificaciones: 3*

*Dentro del apartado de la informática se han gestionado las necesidades informáticas de 669 personas usuarias y se les han proporcionado los equipos necesarios para la realización de sus tareas profesionales. De estos equipos (ordenadores, impresoras, escáner,…):*

- *1.565 han sido proporcionados a través de un contrato de renting incluido en el Encargo General del Gobierno Vasco a EJIE*
- *43 equipos multifunción (fotocopiadoras) son de renting (fuera de EJIE).*

- 16 inprimatze-ekipo berri erosi dira.

Softwarearen garapenari dagokionez:

- 2 software-garapen berri egin dira.
- 38 aplikazio mantentzen ari dira..

Sailaren antolaketaren, baliabideen eta eginkizun komunen inguruko laguntza eta koordinazioaren arloan, 2022ko ekitaldian sortu diren barruko eskaera guztiak izapidetzeko lanak koordinatu ditugu, saileko beste zuzendaritza batzuekin batera. Eskaerak, besteak beste, altzarien antolamenduari, informatikoak ez diren tresna batzuei, ibilgailuei, lekuei, telefonoei eta zehaztu gabeko hainbat gairi buruzkoak izan dira. Guztira, 311 eskaerei eman zaie erantzuna.

Sailaren gainerako programen berariazko helburuak lortzeko eman behar den laguntzaren beste atal baten barruan, 2022. urteko ekitaldian zehar 127 gai bideratu dira Gobernu Kontseilura, eta 303 gai EHAAra.

5. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA HANDIAGOA SUSTATZEA

Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren VI. Plangintzaldian (2018-2022) ezarritakoak sailean aplikatzeari ekin diogu 2022ko ekitaldi honetan. Horrez gain, eta urtero bezala, IVAPen, tutoreen eta ikasleen arteko bitartekotza-lana egiten jarraitu dugu, baita ekintza zehatzen kudeaketa, izapidetzea eta jarraipena ere egin dugu.

Langileei IVAPek antolatzen dituen ikastaroei buruzko informazioa ematen jarraitu diegu, bai hizkuntza-normalizazio orokorrekoei bai hizkuntza-garapenaren prozesuari dagozkionei, eta, modu berean, ikastaro horiei inguruko informazioa eta laguntza eman ohi diegu (matrikulazioa, datak etab.).

Horrela, IVAPeko ikastaroak koordinatzea eta kudeatzeari dagokionez, hizkuntza-normalizazio orokorreko ikastaroen 24 espediente onartu dira: 10 lanorduetan, 7 gizonezko eta 3 emakumezko, eta 14 ere lanorduetatik kanpo, gizonezko 1 eta 13 emakumezko. Era berean, 23 langilek parte hartu dute, guztira, hizkuntza-garapenaren prozesuari dagozkion IVAPek eskainitako beste ikastaro batzuetan (birziklatze ikastaroak, hizkuntza eskakizunen azterketak prestatzekoak...). Horietatik 9 izan dira gizonezkoak eta 14 emakumezkoak. IVAPek euskaraz eskaintzen dituen prestakuntza orokorraren ikastaroak direla eta, 14 gizonezko eta 18 emakumezko izan dira hizkuntza horretan parte hartu duten langileak, 32 guztira.

Bestalde, saileko 53 langilek parte hartu dute IVAPek deitutako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko 2022. urteko lehenengo deialdian. Horietako 17 gizonezkoak izan dira eta gainerako 36ak emakumezkoak. Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko 2022. urteko bigarren deialdian, berriz, 41 langile dira aurkeztutakoak, 16 gizonezkoak eta 25 emakumezkoak.

- *16 nuevos equipos de impresión han sido adquiridos.*

*En cuanto al desarrollo de software:*

- *2 nuevos desarrollos han sido realizados.*
- *38 aplicaciones están en mantenimiento.*

*En el ámbito de coordinación y apoyo en materias de organización, medios y funciones de naturaleza común, se ha coordinado, en colaboración con otras direcciones de este departamento, los trabajos necesarios con el fin de dar trámite a todas las peticiones internas, generadas durante el ejercicio 2022 de organización de mobiliario, equipamiento no informático, vehículos, espacio, telefonía y otros medios materiales sin especificar. Se han atendido 311 peticiones.*

*Como parte de esta labor de apoyo para la consecución de los objetivos específicos del resto de programas del departamento, durante el ejercicio 2022, se han remitido 127 asuntos al Consejo de Gobierno, y 303 asuntos al BOPV.*

*5. FOMENTAR UN MAYOR USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO*

*En este ejercicio 2022 hemos procedido a aplicar en el Departamento lo establecido el Plan de Normalización del Uso del Euskera para su VI. Período de Planificación (2018-2022). Además, como todos los años, se ha continuado con el trabajo de intermediación entre el IVAP, los tutores y los alumnos, por un lado, y mediante la gestión, tramitación y seguimiento de diferentes acciones concretas.*

*Se ha seguido dando la correspondiente información a los trabajadores sobre los cursos organizados por el IVAP, tanto de normalización lingüística general como de desarrollo lingüístico, y se ha realizado la correspondiente labor de asesoramiento respecto de los cursos (matriculación, fechas etc.).*

*Así, referido a la coordinación y gestión de cursos del IVAP, se han admitido 24 expedientes de cursos de normalización lingüística general: 10 en horario laboral, 7 hombres y 3 mujeres, y también 14 fuera de él, 1 hombre y 13 mujeres. De la misma forma, han asistido un total de 23 trabajadores a otros cursos ofertados por el IVAP referidos al proceso de desarrollo lingüístico (cursos de reciclaje, preparación para exámenes de perfil lingüístico...), de los que 9 han sido hombres y 14 mujeres. En cuanto a los cursos de formación general ofertados en euskera por el IVAP, han sido 32 los trabajadores que los han hecho en el referido idioma, siendo 14 los hombres y 18 las mujeres que han tomado parte en ellos.*

*Por otra parte, han sido 53 las personas del Departamento que han tomado parte en los exámenes para acreditar los distintos perfiles lingüísticos, de la primera convocatoria que ha realizado el IVAP en el año 2022. De ellos, 17 han sido hombres y 36 mujeres. En la segunda convocatoria que ha realizado el IVAP en el año 2022, a su vez, se han presentado 41 personas, 16 hombres y 25 mujeres.*

ELEBI programaren mintegiak antolatu dira 2022. urtean, mintzapraktika taldeen ordez, hizkuntza-prestakuntza bereziaren barruan.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren VI. Plangintzaldiko 2022. urte honetan, saileko zuzendaritza guztien kudeaketa-planak prestatu eta onartu ditugu. Horretarako, lan-talde eragile bat, zuzendaritzetako 11 erabilera-batzorde eta saileko Euskara Planaren Koordinazio Taldea (EPKT) ere sortu behar izan ditugu. Horrela, 11 kudeaketa-plan prestatu, onartu eta aurrera eraman ditugu. Hori guztia aurrera eramateko, lan-talde eragileak 20 aldiz bildu da, aurrera eraman beharreko ekintzak aztertzeko; erabilera-batzordeekin egindako bilerak 36 izan dira, 3 hasierako orokorrak eta beste 3 erabilera-batzorde bakoitzarekin; eta EPKTa prozesuaren amaieran eratu zen, kudeaketa-planen jarraipena eta koordinazioa egiteko.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren VI. Plangintzaldia 2022. urtean amaitu da, eta, ondorioz, VI. Plangintzardiaren amaierako balorazio-txostena egin behar izan da.

Ohikoa denez, HNT Batzordearen bilerak izan ditugu, batez ere amaierako ebaluazioa egiteko baita datorren plangintzaldirako tresna guztiak martxan jartzeko ere. Guztira, 15 bilera eta prestakuntza-saio egin ditugu.

HNTon lantaldearen bilerak maiztasun handiz egin ditugu. Guztira 20 bilera izan dira.

6. SAILEKO ESTATISTIKEN USTIAPENA ETA ZABALKUNTZA HOBETZEA BERDINTASUNERAKO AGINDUAK BETEZ

2022an Gobernantza Sailaren eskumenekoak diren 9 estatistika-eragiketa ofizialen inguruan egindako zeregin nagusiak, Euskal Estatistika Planaren barruan, honako hauek izan dira:

Saileko Estatistika Organo Espezifikoak «E-administrazioaren barometroa» izeneko jarduketari buruzko informazioa jaso, ustiatu eta saileko atarian zabaldu du, 2022an.

«Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Langile-Estatistika. 2022» izeneko estatistikaren hedapena hobetu da, sei hilean behin izatetik hiru hilabetera pasatu da. Saileko Estatistika Organo Espezifikoak datuak prestatu eta zabaldu ditu, aurrekontu-plantillei buruzkoa. Estatistika honi lotuta, berdintasunaren arloan 12 adierazle berri sortu dira.

«Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika 2021», izeneko bost urteko errolda barruan:

- Informazioa biltzen amaitzen da.
- Balidazio fasean aurreratzen da.

Horrez gain, «Euskal Autonomia Erkidegoko fundazio sektorea eta onura publikoko elkartegintza - 2020» izeneko estatistikaren urteko hedapena egin da.

Negoziazio-mahaiei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko negoziazio-mahai orokorrak hiru bilera egin ditu langileen lan-baldintzen alderdi batzuk aztertzeko. Besteak beste, gai hauek jorratu dira: Enplegu publikoaren kalitatea hobetzea, telelanari buruzko Dekretu-Proiektua, 2023rako ordainsari-esparrua edo Lan-baldintzen berrikuspena, Europarekin eta 2019ko Iraunkortasun Legearekin bat datorren Kontingentzia Energetikoaren Planaren esparruan.

- Administrazio Orokorreko langileen Negoziazio Mahai Sektorialak 20 bilera egin ditu, eta horietan oso presente egon dira Enplegu Publikoaren Eskaintzak eta haiei dagozkien hautaketa-prozesuen eraketa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko neurriak aplikatuz, eta Kidego eta Eskalen Legearen erregelamendu-garapena, eta beste gai batzuk jorratu ziren, hala nola ordutegi bereziak, lan-poltsen kudeaketa, telelana eta Administrazio Orokorreko funtzionarioentzako eta lan-kontratuko langileentzako 2023rako lanaldi eta ordutegiei buruzko zirkularra
- Euskal espetxe Administrazioko langileen lan – baldintzei buruzko bi akordio sinatu dira.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sektore

*3. REJUVENECER LA PLANTILLA DE LA ADMINISTRACIÓN*

*En el año 2022, en la Administración general de la CAE, se han jubilado 258 personas empleadas públicas: personal funcionario y personal laboral. Los puestos que han dejado vacantes se han ocupado por personal integrante de las bolsas de empleo temporal.*

*4. GESTIONAR LOS PROCESOS Y PROCEDIMIENTOS DE PROVISIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y GESTIÓN DE PERSONAL DE FORMA EFICIENTE Y CONFORME A LOS PRINCIPIOS DE PUBLICIDAD, IGUALDAD, MÉRITO Y CAPACIDAD*

*Concurso de méritos: ORDEN de 17 de octubre de 2022, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se aprueba la convocatoria y las bases del concurso general para la provisión de puestos de trabajo de la Escala Administrativa, Subgrupo C1, nivel de complemento de destino 20, de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.*

*Rebaremación de los integrantes de las bolsas de trabajo.*

*5. REGULAR DE FORMA EFICAZ Y EFICIENTE ASÍ COMO BAJO LOS PRINCIPIOS DE CALIDAD, EXCELENCIA E IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL ADSCRITO A LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, OOAA Y SOCIEDADES PÚBLICAS*

*En relación con las mesas negociadoras se han celebrado 3 reuniones de la Mesa General de negociación en la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para tratar algunos aspectos de las condiciones de trabajo del personal. Se han tratado temas tales como la mejora de la calidad del empleo público, Proyecto de Decreto de teletrabajo o el marco retributivo para 2023, la revisión de las condiciones laborales en el marco del Plan de Contingencia Energética alineado con Europa y con la Ley de Sostenibilidad 2019.*

- *Se han celebrado 20 reuniones de la Mesa Sectorial de Negociación del personal de la Administración General, en las que han estado muy presentes las Ofertas de Empleo Público y la conformación de los correspondientes procesos selectivos en aplicación de las medidas para la reducción de la temporalidad en el empleo público, así como el desarrollo reglamentario de la Ley de Cuerpos y Escalas. Se procedió a la ratificación del Acuerdo en relación a las condiciones de trabajo transitorias y excepcionales aplicables al personal de prisiones, y se trataron otros temas como horarios especiales, gestión de bolsas de trabajo, teletrabajo y la Circular de jornada y horarios para el personal funcionario y laboral de la Administración General para 2023.*
- *Se han suscrito dos Acuerdos relativos a las condiciones de trabajo del personal de la Administración Penitenciaria Vasca.*
- *Se han emitido 62 informes preceptivos sobre*

publikoko langileentzat sinatutako hitzarmenei/akordioei eta soldata-berrikuspenei buruzko nahitaezko 62 txosten egin dira (negoziazio-mahai orokorrean ordezkatutako sektoreak eta sozietate publikoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak).

- Euskal Sektore Publikoko enplegatu publikoentzako telelanari buruzko Dekretu-Proiektuaren izapidetzea bultzatu da.

Berdintasun Unitateari dagokionez:

- Berdintasunerako Batzorde Iraunkorraren esparruan, Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana zehaztu aurreko Diagnostikorako Lantaldeak 5 bilera egin ditu. Batzorde horrek diagnostikoa amaitu du, baita II. Berdintasun Planaren zirriborroa egin ere. Zirriborroa Berdintasunerako Batzorde Iraunkorrak onartu du behin-behinean.

- Bestalde, sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren protokoloa ezartzeko lantaldeak 9 bilera egin ditu, eta horietan Ikerketa Batzordearen Antolaketa eta Funtzionamendu Araudiaren testua landu da. Araudi horrek sexu-jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako jazarpenagatiko salaketen kasuetan jarduten du, baita ikerketa-batzordeetako kideek jarraitu beharreko irizpideak ere.

- Eta, azkenik, Kontziliazioari buruzko Lantaldeak bilera 1 egin du eta, besteak beste, telelana izan du hizpide.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan sexu-jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako jazarpenagatiko salaketa-kasuetan jarduten duen Ikerketa Batzordearen Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua egiteko prozedurari hasiera eman zaio.

6. KALITATEZKO ZERBITZU OROKORRAK EMATEKO SISTEMA BAT EZARTZEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eraikin eta egoitza guztietara sartzeko eta fitxatzeko txartelak egiteari dagokionez, aurreikusitako jarduera-kopurua bete da.

Administrazio Orokorraren eta erakunde autonomoen nomina-aurrerakinei eta horien itzulketaren jarraipenari dagokienez, baita horiek amortizatzeko gertatzen diren gorabehera guztien kontabilitate-kudeaketari dagokionez ere, esan behar da 2022ko ekitaldian bete egin dela gizarte-arreta honi buruzko espedienteak izapidetzeko aurreikusitako helburua, eta aurkeztutako eskaera guztiei erantzun zaiela.

2021eko gizarte-funtsa banatzeko araudia eguneratu, egin eta argitaratu da, eta laguntzen deialdia ere kudeatu da. Zehatz-mehatz, 437 espediente kudeatu dira.

*convenios/acuerdos y revisiones salariales suscritos para el personal del sector público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi (sectores representados en la Mesa General de negociación y sociedades públicas y entes públicos de derecho privado).*

- *Se ha impulsado la tramitación del Proyecto de Decreto de Teletrabajo para el personal empleado público del Sector Público Vasco.*

*En lo referente a la Unidad de Igualdad:*

- *En el ámbito de la Comisión Permanente de Igualdad, el “Grupo de Trabajo para el Diagnóstico previo a la concreción del II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Administración General y sus Organismos Autónomos”, ha celebrado 5 reuniones. Por parte del mismo se ha finalizado el Diagnóstico, así como la elaboración del borrador del II Plan de Igualdad, cuyo borrador ha sido aprobado con carácter provisional por la Comisión Permanente de Igualdad.*

- *El Grupo de Trabajo para la implantación del protocolo de Acoso Sexual y Acoso por razón de sexo, ha celebrado 9 reuniones en las que se ha trabajado el texto del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Investigación, que actúa en los casos de denuncia por acoso sexual y acoso por razón de sexo, así como los criterios que se habrán de seguir por los miembros de las Comisiones de investigación.*

- *Y, por último, el Grupo de Trabajo sobre Conciliación, ha celebrado 1 reunión en la que se ha tratado entre otras el teletrabajo.*

*Se ha procedido al inicio de la tramitación del Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Investigación, que actúa en los casos de denuncia por acoso sexual y acoso por razón de sexo en la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos.*

*6. IMPLANTAR UN SISTEMA DE PRESTACIÓN DE SERVICIOS GENERALES DE CALIDAD*

*En lo referido a la elaboración de tarjetas de fichar y de acceso a todos los edificios-sede de la Administración de la Comunidad Autónoma se ha cumplido con el número previsto de actuaciones.*

*En referencia a los adelantos de nómina y seguimiento del reintegro de los mismos correspondientes a la Administración General y Organismos Autónomos, así como gestión contable de todas las incidencias que se producen para su amortización, decir que en el ejercicio 2022 se ha cumplido con el objetivo previsto de tramitación de expedientes relativos a ésta atención social dándose cobertura a todas las solicitudes presentadas.*

*Se ha procedido a actualizar, elaborar y publicar la normativa correspondiente a la distribución del Fondo Social del ejercicio 2021, así como, a la gestión de la convocatoria de ayudas elevándose el número de expedientes tramitados a 437.*

Eskubide pasiboak onartzeko espedienteetako dokumentazioaren urteko eguneratzea egin da. Guztira, 15 espediente onartu dira, 13/87 Dekretuari jarraituz; eta 67 espediente, berriz, Jaurlaritzari buruzko 7/81 Legearen arabera.

*En el marco de la actualización anual de la documentación de los expedientes en que se ha reconocido algún derecho pasivo se han trabajado un total de 15 expedientes reconocidos conforme al Decreto 13/87 y 67 al amparo de la Ley 7/81, de Gobierno.*

7. LAN - OSASUNA

*7. SALUD LABORAL*

2022an, lan-osasuneko espedienteak kudeatzen jarraitu da, eta guztira 310 izan dira, guztiak ere langileek edo erakundeak egindako jarduketa-eskaera zehatzen ondoriozkoak.

*En el año 2022 se ha continuado con la gestión de los expedientes de salud laboral que han sido en total 310, todos ellos derivados de peticiones concretas de actuación bien por parte del personal, bien por parte de la organización.*

Larrialdi-planak egiten eta berrikusten jarraitu da, baita lantokietako ebakuazio-simulakroak egiten ere.

*Se ha continuado con la elaboración y revisión de planes de emergencia, así como los simulacros de evacuación de los centros de trabajo.*

Erakunde autonomo guztietako lanpostuen arriskuen ebaluazioak berrikusi dira (gutxi gorabehera 2000 postu). Arrisku psikosozialen kudeaketari dagokionez, esku-hartzeak egin dira gatazka indibidualetan eta kolektiboetan (gutxi gorabehera, 25 esku-hartze).

*Se han revisado las evaluaciones de riesgos de los puestos de todos los organismos autónomos (aprox. 2000 puestos). En cuanto a la gestión de los riesgos psicosociales, se han hecho intervenciones en conflictos individuales y colectivos (aprox. 25 intervenciones).*

Lantokietako ebakuazio-taldeetako kide izendatutako langileei larrialdien arloko prestakuntza ematen lagundu da.

*Se ha colaborado en la formación en materia de emergencias del personal nombrado como miembros de equipos de evacuación de los centros de trabajo.*

Berdintasunaren arloko bileretan parte hartu da, Administrazio Orokorraren II. Berdintasun Planaren lan-osasunaren ardatzaren edukia zehazteko, bai eta 2021eko irailaren 1ean EHAAn argitaratutako sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurrean jarduteko programan aurreikusitako ikerketa-batzordeen funtzionamendu-erregelamendua garatu duen lantaldean ere.

*Se ha participado en las reuniones en materia de igualdad para determinar el contenido del eje de salud laboral del II Plan de Igualdad de la Administración General, así como en el grupo de trabajo que ha desarrollado el reglamento de funcionamiento de las comisiones de investigación prevista en el protocolo de actuación frente al acoso sexual y por razón de sexo que se publicó en el BOPV el día 1 de septiembre de 2021.*

**PROGRAMA**

1214 INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOAK

**ARDURADUNA**

04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU OROKORRETAKO SAILBURUORDEA

***PROGRAMA***

*1214 INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES*

***RESPONSABLE***

*04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO*

*VICECONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS GENERALES*

## HELBURUA

1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO-SISTEMEI LAGUNTZA EMATEA, ETA HORIEK ZAINTZEA ETA HOBETZEA

2. EUSKO JAURLARITZAKO SARE KORPORATIBO ADMINISTRATIBOAREN KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

3. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

4. POLITIKA INFORMATIKOA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HAIEN ZABALKUNTZA KOORDINATUZ

5. BELAUNALDI BERRIKO BANDA ZABALA KOKALEKU PERIFERIKOETAKO BIZTANLEGUNEETAN HEDATZEN AMAITZEA

6. ADIMEN ARTIFIZIALAREKIN LOTUTAKO SARIAK EMATEA

## *OBJETIVO*

*1. PROPORCIONAR SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS*

*2. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO*

*3. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES*

*4. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN*

*5. COMPLETAR EL DESPLIEGUE DE LA BANDA ANCHA DE NUEVA GENERACIÓN EN NÚCLEOS DE POBLACIÓN EN EMPLAZAMIENTOS PERIFÉRICOS*

*6. OTORGAMIENTO DE PREMIOS RELACIONADOS CON LA INTELIGENCIA ARTIFICIAL*

## BETETZE MAILA

1. EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO INFORMAZIO-SISTEMEI LAGUNTZA EMATEA, ETA HORIEK ZAINTZEA ETA HOBETZEA

Produktu edo aplikazio batek Eusko Jaurlaritzaren azpiegituraren barruan jardun ahal izateko beharrezkoak diren ustiapen-, kudeaketa- eta euskarri- teknikoko lanak egiteko Eusko Jaurlaritzak EJIE sozietate publikoari egindako IKT zerbitzu errepikarien kudeaketa eta prestazio bateraturako enkargua gauzatu da.

- 6.219 ekipo informatiko kudeatu dira.
- Administrazio elektronikorako plataforma teknologikoaren (Platea) bilakaera.
- 922 kokalekutan eman dira zerbitzuak.
- 2.700 aplikazio informatiko kudeatu dira.
- 45.000 erabiltzaile ingururi eman zaie zerbitzua.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. PROPORCIONAR SOPORTE, MANTENIMIENTO Y MEJORA DE LOS SISTEMAS DE INFORMACIÓN DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA CAE Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS*

*Se ha ejecutado el Encargo para la gestión y prestación unificada de los servicios TIC recurrentes del Gobierno Vasco a la Sociedad Pública EJIE para realizar las tareas de explotación, gestión y soporte técnico necesarias para que un producto o una aplicación pueda operar dentro de la infraestructura del Gobierno Vasco.*

- *Se han gestionado 6.219 equipos informáticos.*
- *Se han gestionado 1.645 equipos de comunicaciones.*
- *Se han prestado servicios en 922 ubicaciones distintas..*
- *Se han gestionado 2.700 aplicaciones informáticas.*
- *Se ha prestado servicio aproximadamente a 45.000 personas usuarias de aplicaciones.*

2. EUSKO JAURLARITZAKO SARE KORPORATIBO ADMINISTRATIBOAREN KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

EJASKen integratutako kommutazioko 165 nodoen telekomunikazio-zerbitzuak administratu dira. Horren ondorioz, 2 eraikin berriri alta eman zaie, 4 lekualdatze egin dira eta ia gaitasun guztiak eguneratu dira.

Batera-ren Erabiltzaileen Atari berriaren garapenaren jarraipena egin da, telefonia finkoaren eta komunikazio mugikorren arloetan. Tresna horrek Eusko Jaurlaritzako langileen behar guztien kudeaketa bideratuko du. Service Nown oinarritutako plataforma berri honen bidez, ahots finkoko 7.200 lanpostu eta mugikorreko 1.600 inguru kudeatzen dira.

EJASKen bideokonferentzia- eta grabazio-sisteman integratutako 23 terminal profesionalak administratu ditu.

EJASKen WIFI Sare Korporatiboa osatzen duten 270 APen kudeaketa administratiboa eta mantentze-lanen zati bat egin da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 916 domeinuen kudeaketa administratiboa egin da.

EJASKen kontura bidalitako 38 milioi SMSen kudeaketa administratiboa egin da.

Interneterako 29 sarbide zuzenen kudeaketa administratiboa egin da, EJASKeko hainbat zerbitzuk behar dituztenak.

Oinarri teknikoen agiriei buruzko 11 txosten egin dira.

*2. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE COMUNICACIONES DE LA RED CORPORATIVA ADMINISTRATIVA DEL GOBIERNO VASCO*

*Se ha realizado la administración de los servicios de telecomunicaciones de los 165 nodos de conmutación integrados en la RCAGV. Esto ha supuesto el alta de 2 nuevos edificios, 4 traslados y la actualización de la práctica totalidad de las capacidades.*

*Se ha realizado el seguimiento del desarrollo del nuevo Portal de Usuarios de Batera, en las áreas de Telefonía Fija y Comunicaciones Móviles. Esta herramienta canalizará la gestión de todas las necesidades de los trabajadores de Gobierno Vasco. Mediante esta nueva plataforma, basada en Service Now, se gestionan unos 7.200 puestos de trabajo de voz fija y unos 1.600 de móvil.*

*Se han administrado los 23 terminales profesionales integrados en sistema de videoconferencia y grabación de la RCAGV.*

*Se ha realizado la gestión administrativa y parte del mantenimiento de los 270 APs que componen la Red WIFI Corporativa de RCAGV.*

*Se ha realizado la gestión administrativa de los 916 Dominios de la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

*Se ha realizado la gestión administrativa de los 38 millones de SMSs enviados a cargo de la RCAGV.*

*Se ha realizado la gestión administrativa de los 29 accesos directos a Internet, que varios servicios de RCAGV necesitan.*

*Se han realizado 11 informes de Pliegos de Bases Técnicas.*

3. TELEKOMUNIKAZIOETAKO SEINALEAK ERAMAN ETA HEDATZEKO ZERBITZUA EMAN ETA BERMATZEA

ITELAZPI, S.A.rekin sinatutako enkarguaren bidez, Eusko Jaurlaritzaren telekomunikazio-sarean erabilgarri dauden azpiegituretako jarduketa nagusiei dagokienez, honako hau egin da:

- Guztira 22 Energia-sistemak instalatzeari ekin zaio, hala nola artezgailuak, bateriak, etenik gabeko elikadura-sistemak, etab.,
- Bi telekomunikazio-dorre aldatu dira Berriatuako eta Zaldiarango zentroetan.
- Jaizkibeleko transformazio-zentro berria.
- LTDko transmititzeko 8 ekipo berritu dira.
- TETRA sarearen estaldura hobetzeko instalatutako ekipo errepikatzaileen kopurua (BTS estazioak) 4 izan da.
- Eguzki plakak instalatu dira Karrantzako erdigunean.

*3. PRESTAR Y GARANTIZAR EL SERVICIO DE TRANSPORTE Y DIFUSIÓN DE SEÑALES DE TELECOMUNICACIONES*

*Por el encargo suscrito con Itelazpi, en lo relativo a las principales actuaciones en las infraestructuras disponibles de la red de Telecomunicaciones de Gobierno Vasco, se ha acometido lo siguiente:*

- *La instalación de un total de 22 sistemas de energía como: rectificadores, baterías, sistemas de alimentación ininterrumpida, etc.*
- *Se ha procedido al finalización de obras: Berriatua y Zaldiaran, motivado por cambios de torres.*
- *Nuevo centro de transformación de Jaizkibel.*
- *El número de equipos Transmisores de T.D.T. renovados ha sido de 8.*
- *El número de equipos repetidores (Estaciones BTS) instalados para mejorar la cobertura de la red TETRA ha sido de 4.*
- *Se han instalado placas solares en el centro de Karrantza.*

4. POLITIKA INFORMATIKOA BETETZEA, PROIEKTU ETA PROZESU KOMUN EDO HORIZONTALAK ETA HAIEN ZABALKUNTZA KOORDINATUZ

*4. CUMPLIMIENTO DE LA POLÍTICA INFORMÁTICA, COORDINANDO LOS PROYECTOS Y PROCESOS COMUNES U HORIZONTALES Y SU DIFUSIÓN*

Eusko Jaurlaritzaren eta EJIE sozietate publikoaren arteko harremanaren ereduari dagozkion informazioa eta tarifak (Enkargu orokorra eta tarifa-ebazpenak) argitaratu dira. Harreman hori enkarguetan oinarritzen da.

*Se ha publicado la información y tarifas (Encargo General y Resoluciones de tarifas) correspondientes al modelo de relación entre el Gobierno Vasco y la Sociedad Pública EJIE, basado en Encargos.*

Bulego Teknologikoak sail, erakunde autonomo eta euskal administrazio publikoaren gainontzeko entitateei zuzendutako hainbat jarduera antolatu dira: Teknologia berriei eta proiektu korporatiboei buruzko 2 mintegi egin dira, eta baita informatika arloko arduradunekin hainbat bilera egin dira.

*Se han organizado diversas actividades del Gabinete Tecnológico dirigidas a los Departamentos, Organismos Autónomos y demás entes del Sector Público Vasco: 2 Seminarios sobre Nuevas Tecnologías y proyectos corporativos, así como distintos encuentros con las personas responsables del área informática.*

Teknologia berriei buruzko «Aurrera» dibulgazio-aldizkariaren 4 ale argitaratu dira.

*Se han publicado 4 números del Boletín divulgativo «Aurrera» sobre Nuevas Tecnologías.*

"TEKgunearen" web-orria eta sare sozialen edukiak eguneratzen jarraitu da. Ekimen horren helburua ezagutzak elkartrukatzea eta softwarea edota zerbitzuak berrerabiltzea da.

*Se ha seguido actualizando los contenidos de la página web y redes sociales de "TEKgunea", iniciativa que tiene como objetivo favorecer el intercambio de conocimientos y reutilización de software o servicios.*

Sailek eta erakunde autonomoek aplikazio informatikoak berrerabiltzeko eta «TEKgunea/OpenApps» aplikazioen biltegian argitaratzeko lanekin jarraitu da. 2022an bi aplikazio berri argitaratu ziren biltegian.

*Se ha continuado con los trabajos para favorecer la reutilización de aplicaciones informáticas por parte de los Departamentos y Organismos Autónomos y su publicación en el Repositorio de Aplicaciones «TEKgunea/OpenApps». En 2022 se publicaron un total de 2 nuevas aplicaciones en el repositorio.*

Administrazio Publikoei zuzendutako "TEKgunea, Working Days - Egunak. Release 2.0" jardunaldiak antolatu dira.

*Se han organizado las jornadas "TEKgunea, Working Days-Egunak. Release 2.0" dirigidas a las Administraciones Públicas.*

"Datuaren Gobernua"-ren esparruan, Eusko Jaurlaritzaren eremuan datuaren gobernantzak izan beharko lituzkeen oinarrizko kontzeptuak definitzen jarraitu da (rolak, tresnak…) eta amaitu da estrategia-dokumentua, azken oniritziak jasotzeke. Dokumentu hori tramitatuko da Gobernu-Kontseiluren bidez. DTIC-ek proiektuan parte hartu du zuzendaritza sustatzaile bezala (DACySD-rekin batera).

*En el ámbito del "gobierno del dato", se ha continuado definiendo los conceptos básicos que debería tener la gobernanza del dato en el ámbito del Gobierno Vasco (roles, herramientas…) y finalizando el documento de estrategia a tramitar mediante acuerdo de Consejo de Gobierno quedó finalizado a falta de las últimas validaciones. La DTIC ha participado en el proyecto como Dirección promotora (junto con la DACySD).*

Guztira, 144 txosten egin dira, informatika-gaiei buruz: baldintza teknikoen orriei buruzko 98 txosten, kudeaketa-gomendioei buruzko 37 txosten eta bestelako gaiei buruzko 9 txosten (Planak, hitzarmenak…).

*Se han evacuado un total de 144 Informes: 98 sobre Pliegos de Bases Técnicas, 37 sobre Encargos y 9 informes de otro carácter (Planes, Convenios…) en materia informática.*

Ez da lortu IKT konbergentziarekin lotutako proiektuetan zuzenean parte hartzea. Hala ere, 2022an Bulego Tekniko bat lizitatu zen, honako helburu hauekin, besteak beste: DTIC-ek PETICen dauden konbergentzia-proiektuak bultzatzea, aurrerapena kontrolatzea eta CETICi (IKT Batzorde Estrategikoa) horren guztiaren berri ematea.

*No se ha logrado participar directamente en proyectos relacionados con la convergencia TIC. Sin embargo, se licitó en 2022 una Oficina Técnica con el objetivo de, entre otras cosas, impulsar por parte de la DTIC los proyectos de convergencia recogidos en el PETIC, controlar su avance e informar a la Comisión Estratégica TIC de todo ello.*

Sail eta erakunde autonomoek tresna normalizatuen bidez egindako 206 zerbitzu-eskaera balioztatu dira, aztertuak eta egiaztatuak izan daitezen.

*Se han recibido un total de 206 peticiones de servicio solicitadas por los Departamentos y Organismos Autónomos a través de las herramientas normalizadas para ser estudiadas y validadas.*

Hainbat material edo baliabide sortu da (kasu honetan, ahotsen grabazioak eta testu-transkripzioak), Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Baliabideen Bankuan sartzeko. Ondoren, «Itzuli» itzultzaile neuronalaren plataformak erabiliko ditu.

*Se ha impulsado la creación de diverso material o recursos para incorporarlos al Banco de Recursos Lingüísticos del Gobierno Vasco (en este caso, grabaciones de voces y transcripciones de texto), que posteriormente serán utilizados por la plataforma del traductor neuronal «Itzuli».*

Eusko Jaurlaritzako eta erakunde autonomoetako langile guztientzat segurtasun informatikoaren eta DBEOren arloko ikastaroak emateko IA programak probatu dira. Programa horiek elebitasuna bermatzen dute. EJIEri adierazten zaio lizitazio-prozesua has dezala, ondoren enkargu bat egiteko.

*Se han testado programas de IA para la impartición de cursos en materia de Seguridad informática y RGPD, LOPD_GDD para todo el personal de EJ-GV y OOAA. Dichos programas garantizan el bilingüismo. Se indica a Ejie que inicie el proceso de licitación para un posterior encargo.*

Barne-auditoria bat egin da, kanpo-auditoria baten bidez Eusko Jaurlaritza eta haren erakunde autonomoentzako SEN ziurtagiria lortzeko. Halaber, eta helburu hori lortzeko, kanpoko auditoria hasi da.

*Se ha realizado una auditoria interna destinada a conseguir mediante una auditoría externa la certificación ENS para EJ-GV y sus OOAA. Asimismo, se inicia a tal efecto, la auditoria externa.*

Bestalde, datu-babesei buruzko 14 auditoria egin dira (RGPD-rekin lotuta) eta 400 arrisku analisi (BIA) baino gehiago.

*Por otra parte, se han realizado 14 auditorías de protección de datos relacionadas con el RGPD y más de 400 análisis de riesgos (BIA).*

Halaber, probatu da AA (adimen artifiziala) erabiltzen den programa bat segurtasun-informatika eta RGPD-ri buruzko ikastaroak eskaintzeko. Une hauetan erosketa kudeatzen ari da.

*Adicionalmente, se ha testado un programa que utiliza IA para impartir cursos de Seguridad Informática y RGPD y se está tramitando en estos momentos la compra del mismo.*

Horrez gain, Osasun Sailaren kanpo-auditorian (e-rezeta) hautemandako desadostasunen jarraipena egiten ari da.

*Está en curso el seguimiento de no conformidades detectadas en la auditoria externa del Departamento de Salud (e-rezeta).*

Osasun Sailarekin eta EJIErekin lankidetzan jarraitzen dugu e-rezeta aplikazioari egindako kanpo-auditorian hautemandako desadostasunak lortzeko. Osasun Ministerioak ezarritako neurriak bete ditzan eta Europako errezetaren elkarreragingarritasuna lortzeko.

*Se sigue colaborado con el Departamento de Salud y EJIE para la consecución de las no conformidades detectadas en la auditoria externa realizada a la aplicación e-rezeta. Para que cumpla las medidas marcadas por el Ministerio de Sanidad y destinado a conseguir la Interoperabilidad de la receta europea.*

BIA (Business Impact Analysis) egin zaie Eusko Jaurlaritzako sailetako eta erakunde autonomoetako Zerbitzuen Katalogoko zerbitzu guztiei, SENek markatutako betetze-maila egiaztatzeko.

*Se han realizado el BIA a todos los servicios del catálogo de Servicios de los Departamentos y OOAA de EJGV, para verificar el cumplimiento marcado por el ENS.*

5. BELAUNALDI BERRIKO BANDA ZABALA KOKALEKU PERIFERIKOETAKO BIZTANLEGUNEETAN HEDATZEN AMAITZEA

*5. COMPLETAR EL DESPLIEGUE DE LA BANDA ANCHA DE NUEVA GENERACIÓN EN NÚCLEOS DE POBLACIÓN EN EMPLAZAMIENTOS PERIFÉRICOS*

Ekintza hori 2018an hasi zen, eta 2022an 56 gune hedatu dira; horietatik 27 Arabakoak izan dira, 28 Bizkaikoak eta 8 Gipuzkoakoak.

*Dicha acción comenzó en 2018 y durante 2022 el número de núcleos desplegados ha sido de 63, de los cuales 27 corresponden a Araba, 28 a Bizkaia y 8 a Gipuzkoa.*

6. ADIMEN ARTIFIZIALAREKIN LOTUTAKO SARIAK EMATEA

*6. OTORGAMIENTO DE PREMIOS RELACIONADOS CON LA INTELIGENCIA ARTIFICIAL*

2021eko urriaren 1ean argitaratu zen EHAAn 2021eko irailaren 21eko AGINDUA, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, 2021erako adimen artifiziala sustatu eta garatzeko sarien lehen deialdia onartzen duena.

*El 1 de octubre de 2021 se publicó en el BOPV la ORDEN de 21 de septiembre de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, por la que se aprueba la primera convocatoria de los premios para el fomento y desarrollo de la inteligencia artificial para el año 2021.*

Sari hauek bi urtean behin ematen dira (bi urtean behin egiten dira), beraz, lehenengo edizio honetan 2021ean eta 2022an egin ziren. 14 eskaera aurkeztu ziren. Lehenengo fasean, Balorazio Organoak 6 proposamen hautatu zituen, eta bakoitzak 15.000 euroko saria jaso zuen. Memoria zehatza egin ondoren, 3 aukeratu ziren prototipo bat garatzeko, eta, ondorioz, 30.000 euroko dirulaguntza eman zitzaien.

*Estos premios tienen carácter bienal (se realizan cada dos años), por lo que en esta primera edición se celebraron durante 2021 y 2022. Se presentaron 14 solicitudes. En una primera fase, el Órgano de Valoración seleccionó 6 propuestas que fueron premiadas con 15.000 euros cada una. Tras el desarrollo de una memoria detallada, fueron seleccionadas 3 para desarrollar un prototipo y, en consecuencia, se les concedió una subvención de 30.000 euros.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA | *1215 INNOVACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERA DE RELACIONES INSTITUCIONALES* |

## HELBURUA

1. GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA HOBETZEA

2. KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA ESKURAGARRIA OSATZEA ETA ZERBITZU ELEKTRONIKOEN ERABILERA SUSTATZEA

3. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA HOBETZEA ETA TEKNOLOGIA MODU ADIMENDUAN ERABILTZEA

4. ERREFERENTZIAZKO NAZIOARTEKO SAREETAN GOBERNU BERRIA BULTZATZEA

5. GIZARTE SAREETAKO PARTE HARTZE ERAGINKORRA BULTZATEA

## *OBJETIVO*

*1. MEJORAR LA TRANSPARENCIA Y LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA*

*2. COMPLETAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE Y PROMOVER EL USO DE SERVICIOS ELECTRÓNICOS*

*3. MEJORAR LA COLABORACIÓN INTERADMINISTRATIVA Y REALIZAR UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA*

*4. PROMOVER EL GOBIERNO ABIERTO EN REDES INTERNACIONALES DE REFERENCIA*

*5. IMPULSAR LA PARTICIPACIÓN ACTIVA EN REDES SOCIALES*

## BETETZE MAILA

1. GARDENTASUNA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEA HOBETZEA

2022an, jarraipena eman zaio informazioa kalitate handiz eta modu eskuragarrian argitaratzeko konpromisoari.

2022ko apirilaren 5ean, Gobernu Kontseiluak EAEko administrazio orokorrean eta sektore publikoan gardentasunaren ezarpen-mailari buruzko 2021eko balantze-txostenaren berri izateko eta gardentasuna eta gobernu ona sustatzen jarraitzeko neurriak onartzeko Erabakia hartu zuen.

Halaber, 2022an Gobernantza, gardentasuna eta herritarren partaidetzarako Sailarteko Batzordearen bilera bat egin da.

Bultzada eman zaio Eusko Jaurlaritzaren Opendata Euskadi datu irekien atariari. 2022ko abenduaren 31n 10.600 datu-multzo baino gehiago zeuden eskuragarri, aurreko urtean baino ia 4.000 gehiago.

Herritarrek parte hartzeko prozesuei dagokienez, 2022an balio publikoa batera sortzeko proiektu berritzaileen Elkarlan Sariak deitu eta eman dira. Era berean, OPEN DATA sariak eman zaizkie Euskadiko Datu Irekien

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. MEJORAR LA TRANSPARENCIA Y LA PARTICIPACIÓN CIUDADANA*

*En 2022 se ha dado continuidad al compromiso de publicar información con un muy alto nivel de calidad y de forma accesible.*

*El 5 de abril de 2022, el Consejo de Gobierno adoptó el Acuerdo por el que se toma conocimiento del informe de balance 2021 sobre el grado de implantación de la transparencia en la administración general de la CAE y su sector público y se aprueban las medidas para proseguir con el impulso de la transparencia y el buen gobierno.*

*Asimismo, en 2022 se ha celebrado una reunión de la Comisión interdepartamental de gobernanza, transparencia y participación ciudadana.*

*Se ha dado un nuevo impulso al portal de datos abiertos del Gobierno Vasco, Opendata Euskadi. A 31 de diciembre de 2022 había disponibles más de 10.600 conjuntos de datos, cerca de 4.000 más que el año anterior.*

*En lo relativo a los procesos de participación ciudadana, en 2022 se han convocado y concedido los Premios Elkarlan de proyectos innovadores de cogeneración de valor público. Asimismo, se han concedido los premios OPEN*

Berrerabilera onenei eta Euskadiko Datu Irekien Berrerabilpenaren Ideia onenei.

*DATA a las mejores Reutilizaciones de Datos Abiertos de Euskadi y a las mejores Ideas de Reutilización de Datos Abiertos de Euskadi.*

2. KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA ESKURAGARRIA OSATZEA ETA ZERBITZU ELEKTRONIKOEN ERABILERA SUSTATZEA

*2. COMPLETAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE Y PROMOVER EL USO DE SERVICIOS ELECTRÓNICOS*

2022an, Zuzenean Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak 309.000 arreta presentzial baino gehiago eman zituen, 277.700 arreta telefoniko, 35.200 arreta baino gehiago komunikazio postontziaren bidez, eta 11.600 arreta Telegram bidez. Arreta-bolumen horri Erregistro Elektroniko Orokorraren bidezko 24.300 komunikazio inguru gehitu behar zaizkio, bai eta 131.000 komunikazio baino gehiago ere, Erregistroko Interkonexio Sistemaren bidez.

*En el año 2022 el Servicio de Atención a la ciudadanía, Zuzenean, realizó más de 309.000 atenciones presenciales, 277.700 atenciones telefónicas, más de 35.200 atenciones a través del buzón de comunicación, así como 11.600 vía Telegram. A ese volumen de atenciones hay que añadirle las cerca de 24.300 comunicaciones a través del Registro Electrónico General, así como más de 131.000 a través del Sistema de Interconexión de Registro.*

Zuzenean zerbitzuaren erabiltzaileen igurikimenei eta gogobetetzeari buruzko inkesta argitaratu da, 2021eko jarduerari buruzkoa. Gainera, hileko jarduera-txostenak argitaratu dira.

*Se ha publicado la encuesta de expectativas y satisfacción de las personas usuarias de Zuzenean relativa a la actividad del año 2021. Además, se han publicado los informes de actividad mensuales.*

Era berean, 2022an, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko funtzionario gaituen erregistroa arautzen duen Agindua onartu da.

*Asimismo, en el año 2022 se ha aprobado la Orden que regula el Registro de personal funcionario habilitado de la administración pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

euskadi.eus-en web atarien sareak 29 milioi erabiltzaile baino gehiago izan ditu.

*La red de portales web de euskadi.eus ha recibido más de 29 millones de usuarios.*

Egoitza elektronikoak euskadi.eus-en 4.582.529 erabiltzaile izan ditu, eta gorakada nabarmena izan du 2021ean izandako 3.163.000 erabiltzaileekin alderatuta. 2022an 31.156.642 bisita egin dira egoitza elektronikora, aurreko urtean baino 10 milioi gehiago.

*La sede electrónica en euskadi.eus ha recibido 4.582.529 usuarios, dándose un importante incremento respecto a los 3.163.000 del año 2021. En 2022 se han realizado 31.156.642 visitas a la sede electrónica, 10 millones más que el año anterior.*

Nire Karpetak ia 2.960.000 erabiltzaile izan ditu. Erabiltzaile horiek 8.778.000 bisita baino gehiago izan dituzte.

*Nire Karpeta/Mi Carpeta ha recibido casi 2.960.000 usuarios. Dichos usuarios han realizado más de 8.778.000 visitas.*

Nire Karpeta/Mi Carpeta bisitatu duten erabiltzaileek 3,21 puntu eman dizkiote esperientziari (1etik 5erako balorazioa), hau da, 2022an lortutako 3,15 baino gehiago.

*Los usuarios que han visitado Nire Karpeta/Mi Carpeta han valorado la experiencia con un 3,21 (valoración de 1 a 5), lo cual es superior al 3,15 obtenido en 2022.*

Herritarren eskura jarritako ordainbideei dagokienez, 2022an 45.000 eragiketa baino gehiago egin dira Bizumen bidez, eta 4.100 baino gehiago Mipago Walleten bidez.

*En lo que se refiere a los medios de pago puestos a disposición de la ciudadanía, en 2022 se han realizado más de 45.000 operaciones a través de Bizum y más de 4.100 a través de Mipago Wallet.*

3. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO LANKIDETZA HOBETZEA ETA TEKNOLOGIA MODU ADIMENDUAN ERABILTZEA

*3. MEJORAR LA COLABORACIÓN INTERADMINISTRATIVA Y REALIZAR UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA*

2022an, Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialaren zein lantalde desberdinen hainbat lan-bilera egin dira, administrazio elektronikoaren bultzada koordinatzeko eta kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko, informazioaren teknologiak zentzuz erabiliz.

*En 2022 se han realizado diversas reuniones de trabajo de la Comisión Sectorial de Administraciones Públicas, así como de los diversos grupos de trabajo, para tratar de coordinar el impulso de la administración electrónica y para mejorar la eficiencia en la gestión haciendo un uso inteligente de las tecnologías de la información.*

2022an, euskal administrazio publikoen elkarreragingarritasun-sistema orokorra bultzatzen jarraitu da, administrazio horien arteko datu-trukeak errazteko, herritarrek dokumentazioa aurkez ez dezaten.

*En 2022 se ha seguido impulsando el sistema general de interoperabilidad de las administraciones públicas vascas cuyo objeto es facilitar los intercambios de datos entre las mismas para evitar la presentación de documentación por parte de la ciudadanía.*

2022an, NISAEren katalogoan 113 zerbitzu zeuden eskuragarri.

*En el año 2022 en el catálogo de NISAE había disponibles 113 servicios.*

Erabilgarri dauden zerbitzuen katalogoa osatzen jarraitzeko lanari jarraipena eman zaio, bai eta administrazioen arteko elkarreragingarritasunaren erabilera eta informazio-trukea sustatzeari ere. Bilakaera oso positiboa izaten ari da.

*Se ha dado continuidad a la labor de seguir completando el catálogo de servicios disponibles, así como fomentando el uso de la interoperabilidad y el intercambio de información entre las diversas administraciones. La evolución está siendo muy positiva.*

Identifikazio elektronikoari dagokionez, 28 milioi autentikazio eta 820.000 sinadura baino gehiago izan dira.

*Respecto a la identificación electrónica, se han producido más de 28 millones de autenticaciones y más de 820.000 firmas.*

4. ERREFERENTZIAZKO NAZIOARTEKO SAREETAN GOBERNU BERRIA BULTZATZEA

*4. PROMOVER EL GOBIERNO ABIERTO EN REDES INTERNACIONALES DE REFERENCIA*

2022an, gainerako administrazio, erakunde eta pertsona parte-hartzaileekin lankidetzan, jarraipena eman zaio OGP Euskadiren 2021-2024 ekintza-planaren ezarpenari eta jarraipenari. Konpromiso-taldeen lan-dinamikaz gain, Foro Irekiaren bilera bat egin da, bai eta foro iraunkorraren eta foro erregularraren hainbat bilera ere. OGPk sustatutako bestelako bilera eta jardunaldietan ere parte hartu da, OGP Euskadiren esperientzia ezagutarazteko.

*A lo largo del año 2022, y en colaboración con el resto de administraciones, entidades y personas participantes, se ha dado continuidad a la implementación y el seguimiento del plan de acción 2021-2024 de OGP Euskadi. Más allá de la dinámica de trabajo de los diversos grupos de compromiso, se ha realizado una reunión del Foro Abierto, así como diversas reuniones del foro permanente y del foro regular. También se ha participado en otras reuniones y jornadas promovidas por OGP para dar a conocer la experiencia de OGP Euskadi.*

5. GIZARTE SAREETAKO PARTE HARTZE ERAGINKORRA BULTZATEA

*5. IMPULSAR LA PARTICIPACIÓN ACTIVA EN REDES SOCIALES*

Gobernu Irekiaren zuzendaritzaren sare sozialetako profilen bidez herritarrek administrazioarekin egiten dituzten interakzioak inpresioetan, erreakzioetan edo argitaratutako edukiak partekatuz kontabilizatzen dira. Gaur egun, bereizitako bi perfil erabiltzen dira: bata, Irekiarena, eta, bestea, Eusko Jaurlaritzarena. Bien artean guztira 16.226 interakzio izan ditugu 2022ko azken 3 hiruhilekoetan. Urte osoko datuetara estrapolatuko bagenu, 20.000ko helburura iristea lortuko genuke, baina datu hau egonkortu egin beharko genuke datozen urteotarako.

*Las interactuaciones de la ciudadanía con la administración a través de los perfiles en redes sociales de la Dirección de Gobierno Abierto se contabilizan en impresiones, reacciones o compartiendo los diferentes contenidos publicados. Actualmente se utilizan dos identificadores separados: uno específico de Irekia, y otro genérico de Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco. Con la suma de ambos, en total ha habido 16.226 interacciones en los 3 últimos trimestres de 2022. Si extrapolamos este dato al año completo, llegaríamos al objetivo de 20.000 interacciones al año, pero habría que afianzar este dato para los próximos años.*

Horrez gain, YouTube, Ivoox eta Spotify bezalako sare sozialen bidez ikus-entzunezko edota podcast moduko edukiak gehitzen jarraitu da.

*Complementariamente, se ha continuado con la incorporación de contenidos audiovisuales y podcasts a través de redes sociales como YouTube, Ivoox y Spotify.*

Herritarrak eta arduradun publikoak biltzeko topaketei dagokienez, bultzada eman zaie. Hasiera batetan lau topaketa antolatzea aurreikusi bazen ere, 2022an zehar sei egin dira.

*Se ha dado un impulso a los encuentros entre ciudadanía y responsables públicos. Si bien se estimó la realización de cuatro encuentros, en 2022 se han llevado a cabo 6.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1217 ERAKUNDEEN HARREMANAK | *1217 RELACIONES INSTITUCIONALES* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| ERAKUNDE HARREMANETARAKO SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERA DE RELACIONES INSTITUCIONALES* |

## HELBURUA

1. GOBERNU-KONTSEILUAREN JARDUERA ANTOLATU ETA PRESTATZEA
2. LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA
3. ARARTEAKOAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA
4. EAEKO SEKTORE PUBLIKOAK SINATUTAKO HITZARMENEN INSKRIPZIOA BERMATZEA.
5. AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN XEDAPENAK ETA EGINTZAK ARGITARATZEA
6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRU GOBERNU-MAILAK EGITURATZEKO PROZESUA AMAITZEA
7. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EREMUKO FUNDAZIOEI, ELKARTEEI ETA ELKARGO PROFESIONALEI APLIKATZEN ZAIEN ESPARRU JURIDIKOA ARGITZEA
8. ESKAINITAKO ZERBITZUAK PROZEDURAK TELEMATIZATUZ MODERNIZATZEA

## *OBJETIVO*

*1. ORDENAR Y PREPARAR LA ACTIVIDAD DEL CONSEJO DE GOBIERNO*

*2. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO*

*3. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL ARARTEKO*

*4. GARANTIZAR LA INSCRIPCIÓN DE LOS CONVENIOS SUSCRITOS POR EL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE*

*5. PUBLICAR LAS DISPOSICIONES Y ACTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA*

*6. CULMINAR EL PROCESO DE ARTICULACIÓN DE LOS TRES NIVELES DE GOBIERNO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

*7. CLARIFICACIÓN DEL MARCO JURÍDICO APLICABLE A LAS FUNDACIONES, ASOCIACIONES Y COLEGIOS PROFESIONALES DEL ÁMBITO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

*8. MODERNIZACIÓN DE LOS SERVICIOS OFRECIDOS A TRAVÉS DE LA TELEMATIZACIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS*

## BETETZE MAILA

1. GOBERNU-KONTSEILUAREN JARDUERA ANTOLATU ETA PRESTATZEA

Jaurlaritzako kide anitzeko organoen bilerekin loturiko jardunei dagokienez, Gobernu Kontseilurako 46 gai-zerrenda prestatu dira. Halaber, 1.470 espediente berrikusi dira eta dagozkien txostenak egin dira. Era berean, Gobernu Kontseiluak onartutako gaiei buruzko 747 ziurtagiri egin dira, 41 gai izapidetu dira Eusko Legebiltzarrerako eta 329 agiri bidali dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. ORDENAR Y PREPARAR LA ACTIVIDAD DEL CONSEJO DE GOBIERNO*

*Por lo que respecta a las actuaciones relacionadas con las sesiones de los órganos colegiados del Gobierno, se han elaborado 46 órdenes del día del Consejo de Gobierno. Se han revisado un total de 1.470 asuntos y elaborado los respectivos informes. Asimismo, se han expedido 747 certificaciones de los asuntos aprobados por el Consejo de Gobierno, se han tramitado al Parlamento Vasco 41 asuntos y se han remitido al Boletín Oficial del País Vasco 329 documentos.*

2. LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzan zentralizatu dira Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko komunikazio guztiak. Horrek harremanak erraztea bermatzen du, izan ere, bana-banako jarraipenaren bidez, kasu bakoitzean eskatutako epeak betetzen direla zaintzen da; orobat bermatzen du beharreko laguntza ematea eta, hala dagokionean, Jaurlaritzak legebiltzarraren ekimenei buruzko akordioak har ditzan proposatzea.

Idazkaritzak Eusko Legebiltzarraren ekimen, erabaki eta jakinarazpenak izapidetu ditu Jaurlaritzaren hainbat organotan; eta halako jakinarazpen hauek bidali ditu Legebiltzarrera: lege-proiektuekin zerikusia duten jakinarazpenak eta gaiak, osoko bilkuran edo batzordean eztabaida daitezen, galderei eta informazio-eskaerei emandako erantzunak; Lurralde Historikoekin eta Autonomia-Erkidegokoekin egindako hitzarmenak, eta, oro har, legezko eta arauzko xedapenetan aurreikusitako akordioak eta komunikazioak (6.047 jakinarazpen guztira).

Legez besteko proposamenen, mozioen eta ebazpenen betetze-mailari buruzko txostenak egin dira.

*2. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL PARLAMENTO*

*La centralización en la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento de todas las comunicaciones entre Gobierno y Parlamento garantiza que las relaciones sean fluidas, al velar, mediante un seguimiento individualizado, por el cumplimiento de los plazos exigidos en cada caso, prestar la asistencia técnica requerida y promover, en su caso, la adopción por el Gobierno de Acuerdos relativos a las iniciativas parlamentarias.*

*La Secretaría ha tramitado ante los distintos órganos del Gobierno iniciativas, acuerdos y comunicaciones procedentes del Parlamento Vasco y ha remitido a dicha Cámara todas las comunicaciones relacionadas con los proyectos de ley y asuntos para su debate en pleno o en comisión, las contestaciones a las preguntas y solicitudes de información, los convenios con los Territorios Históricos y Comunidades Autónomas y, en general, los acuerdos y comunicaciones previstas en las disposiciones legales y reglamentarias (6.047 comunicaciones en total).*

*Se han elaborado informes relativos al grado de cumplimiento de proposiciones no de ley, mociones y resoluciones.*

3. ARARTEAKOAREKIKO HARREMANEN ARINTASUNA BERMATZEA

Arartekoari dagokionez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak harremanetarako organo gisa jardun du, eta 530 gai izapidetu ditu, kexa, informazio-eskaera gomendioei buruzko espedienteetatik eratorriak, hain zuzen ere. Espediente horiek kudeatzeko 2.017 komunikazio inguru izapidetu dira. Paperezko komunikazioak ezabatu egin dira, Jaurlaritzaren eta Arartekoaren egoitza elektronikoaren bidez egiten dira.

*3. GARANTIZAR LA FLUIDEZ DE LAS RELACIONES CON EL ARARTEKO*

*En lo que respecta al Ararteko, la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento ha actuado como órgano de relación y ha tramitado 530 asuntos derivados de expedientes relativos a quejas, solicitudes de información y recomendaciones. La gestión de dichos expedientes ha supuesto la tramitación de aproximadamente 2.017 comunicaciones. Se han eliminado las comunicaciones en papel haciendo las mismas a través de la sede electrónica tanto del Gobierno como del Ararteko.*

4. EAEKO SEKTORE PUBLIKOAK SINATUTAKO HITZARMENEN INSKRIPZIOA BERMATZEA.

Amaitu da Hitzarmenen Erregistroaren aplikazio informatikoaren garapena. Horri esker, EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeen artean, beren artean edo beste edozein administrazio, erakunde edo erakunde publiko edo pribaturekin egiten diren hitzarmenak edo akordioak inskribatu ahal izango dira, eta aplikazio hori egokitu egin da, sail batekin proba pilotu bat hasteko, gainerako sailetara ezarri aurretik.

107 hitzarmen berri inskribatu dira eta 6 luzatu.

*4. GARANTIZAR LA INSCRIPCIÓN DE LOS CONVENIOS SUSCRITOS POR EL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE*

*Se ha ultimado el desarrollo de la aplicación informática de Registro de Convenios que permitirá inscribir los convenios o acuerdos que se celebren entre las entidades integrantes del sector público de la CAE, entre sí o con cualquier otra Administración, entidad y organización pública o privada y se ha adaptado la misma para poder iniciar una prueba piloto con un Departamento antes de implantarlo al resto de los Departamentos.*

*Se han inscrito 107 nuevos Convenios y se han prorrogado 6.*

5. AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN XEDAPENAK ETA EGINTZAK ARGITARATZEA

Autonomia Erkidegoaren xedapen eta ekintzen publizitate ofizialari dagokionez, 2022an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 249 zenbaki argitaratu dira euskaraz, eta beste hainbeste gaztelaniaz. Guztira, 74.831 orrialde argitaratu dira.

*5. PUBLICAR LAS DISPOSICIONES Y ACTOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA*

*Por lo que a la publicidad oficial de las disposiciones y actos de la Comunidad Autónoma respecta, durante el ejercicio 2022, se han publicado 249 números en euskera y 249 números en castellano del Boletín Oficial del País Vasco. Se han publicado un total de 74.831 páginas.*

Aldizkariaren edizio elektronikoari dagozkion 24.268 pdf eta epub fitxategi kargatu dira sarean, Internet zein Intranet bidez.

*Se han cargado en Internet 24.268 ficheros pdf y epub correspondientes a la edición electrónica del Boletín a través de Internet e Intranet.*

EHAAren datu-base dokumentalari dagokionez (1936tik gaur egun artekoa) Internet zein Intranet bidez kontsulta daitekeena, 2022 urtean, 47.540 erregistro kargatu dira bi hizkuntzetan, xml, shtml, html eta idx formatuetan.

*Asimismo, en cuanto a la base de datos documental del BOPV (desde 1936 hasta la actualidad) se refiere, cuya consulta se realiza a través de Internet e Intranet, se han cargado en el año 2022, 47.540 registros en ambos idiomas, correspondientes a los formatos xml, shtml, html e idx.*

Bestalde, 8.431 dokumentu eragiketak egin dira. Hona hemen xehetasunak: 1.991 xedapen orokorrei eta beste xedapen batzuei dagozkie; 1.879 agintariei eta langileei; 1.927 iragarkien atalari; 7 Justiziaren Administrazioaren atalari; 2.619 aurreko eta ondoko erreferentziei; eta 4 kontsolidatutako testuei (8 hizkuntza bietan). Guztira, 5.804 dokumentu indizatu dira.

*Por otra parte, se han realizado 8.431 operaciones documentales, con el siguiente detalle: 1.991 correspondientes a Disposiciones Generales y Otras Disposiciones; 1.879 de Autoridades y Personal; y 1.927 del apartado de Anuncios, 7 Administración de Justicia, 2.619 referencias anteriores y 4 textos consolidados (8 en ambos idiomas). En total, se han indizado 5.804 documentos entre ambos idiomas.*

Zerbitzari-atalari dagokionez, 2022ko Google Analytics aplikazioaren arabera 3.549.737 orrialde ikusi dira 1.187.996 egindako bisitetan. Horietatik %31,6 gailu mugikorretatik izan da.

*En cuanto a la sección del servidor, y según la aplicación Google Analytics, se han contabilizado para el año 2022 un total de 3.549.737 de páginas visualizadas en 1.187.996 de visitas realizadas. El 31,6% de esas visitas se ha realizado desde dispositivos móviles.*

Ikusitako orrialde horietatik %94,88 gazteleraz izan dira eta %5,12 euskaraz.

*De las páginas vistas, un 94,88% han sido en castellano y un 5,12% en euskera.*

EHAAko web orrira nondik datozen bisitak: %44,7 Googletik, %27,9 orrira zuzenean sartuta, %5 BOEtik, %2,5 Bing bilatzailetik, %2,3 UPV/EHUko web orritik, eta azkenik, %17,6 beste hainbat tokitatik.

*En cuanto a de dónde proceden las visitas al BOPV: el 44,7% de Google, el 27,9% accediendo directamente a la web, el 5% del BOE, el 2,5% del buscador Bing, el 2,3% de la página web de la UPV/EHU y, por último, el 17,6% de distintas fuentes.*

Aldizkaria gaika jasotzeko zerbitzuaren harpidetzei dagokienez, 2022ko abenduaren 31n 5.706 harpidedun daude. 572 euskaraz (%10,02) eta 5.134 gazteleraz (%89,98).

*En el capítulo de la suscripción difusiva selectiva se contabilizan, a 31 de diciembre de 2022, un total de 5.706 suscriptores, de los que 572 son en euskera (10,02%) y 5.134 en castellano (89,98%).*

Azkenik, 606 iragarki, 2 forua agindu eta 4 ebazpen fakturatu dira.

*Por último, se han facturado 606 anuncios, 2 ordenes forales y 4 resoluciones.*

6. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRU GOBERNU-MAILAK EGITURATZEKO PROZESUA AMAITZEA

*6. CULMINAR EL PROCESO DE ARTICULACIÓN DE LOS TRES NIVELES DE GOBIERNO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

2022an amaitu da Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko 179/2019 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren izapidetzea.

*En 2022 se ha concluido la tramitación del proyecto de decreto de modificación del Decreto 179/2019 sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.*

Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoari buruzko dekretu-proiektua izapidetzeak ezin izan du aurreikusitako bultzada izan, lehentasuna eman behar izan baitzaio Euskal Autonomia Erkidegoan gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioak egonkortzeko lan-eskaintza publikoa onartzeari eta, ondoren, dagozkion oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzeari.

*La tramitación de Proyecto de Decreto de régimen jurídico del personal funcionario de Administración Local con habilitación nacional en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco no ha podido tener el impulso previsto debido a la prioridad que ha supuesto la aprobación de la Oferta de Empleo Público de estabilización del personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi y, posteriormente, la aprobación de las correspondientes bases generales y específicas.*

Era berean, Idazkaritza-Kontuhartzailetza azpieskalan gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak bitarteko

*Asimismo, se está gestionando la relación de personas candidatas propia de la Comunidad Autonómica de Euskadi para la provisión mediante nombramiento interino,*

izendapen bidez betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoko hautagaien zerrenda kudeatzen ari da, bai eta Idazkaritza-Kontuhartzailetza-Diruzaintza azpieskalan hautagaien zerrenda ere.

*de puestos reservados a personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional de la subescala de Secretaría-Intervención, así como la relación de personas candidatas en la subescala de Secretaría e Intervención-Tesorería.*

Beste bi maila instituzionalekin (Foru Aldundiak eta udalak) lankidetzan aritzeari dagokionez, Tokiko Politiken Euskal Kontseiluaren deialdia egin da, udalerrien eta autonomia- eta foru-erakundeen arteko lankidetza-harremanak gauzatzeko, tokiko gobernu-eremuari eragin diezaioketen politika publikoak diseinatu, egin, gauzatu eta ebaluatzeko prozesuetan udalerrien interesak aitortu eta haztatzeko. Era berean, Administrazio Publikoen Batzorde Sektorialaren jarduera bultzatu da hiru lantalderen bidez.

*En relación a la colaboración con los otros dos niveles institucionales (Diputaciones Forales y Ayuntamientos) de manera que se consiga hacer efectivas las relaciones de cooperación institucional de los municipios con las instituciones autonómicas y forales para el reconocimiento y ponderación de los intereses municipales en los procesos de diseño, elaboración, ejecución y evaluación de las políticas públicas que puedan afectar al ámbito local de gobierno, se ha realizado una convocatoria del Consejo Vasco de Políticas Locales. Así mismo, se ha impulsado la actividad de la Comisión Sectorial de Administraciones Públicas a través de tres grupos de trabajo.*

2022an, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeak 17 txosten egin ditu lege-aurreproiektuei eta dekretu-proiektuei buruz.

*En 2022, la Comisión de Gobiernos Locales de Euskadi ha emitido 17 informes relativos a anteproyectos de ley y proyectos de decreto.*

Aurrekontuen Legean aurreikusten den EUDELi zuzendutako dirulaguntza izapidetu da.

*Se ha tramitado la subvención recogida en la Ley de Presupuestos destinada a EUDEL.*

## 7. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EREMUKO FUNDAZIOEI, ELKARTEEI ETA ELKARGO PROFESIONALEI APLIKATZEN ZAIEN ESPARRU JURIDIKOA ARGITZEA

## *7. CLARIFICACIÓN DEL MARCO JURÍDICO APLICABLE A LAS FUNDACIONES, ASOCIACIONES Y COLEGIOS PROFESIONALES DEL ÁMBITO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

Fundazioei, elkarteei eta elkargo profesionalei aplikatu beharreko esparru juridikoa argitzeko, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak bilera ugari inguru egin ditu sektore desberdinekin.

*Con el objetivo de clarificar el marco jurídico aplicable a fundaciones, asociaciones y colegios profesionales la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos ha mantenido numerosas reuniones con los distintos sectores.*

2022an FUNKO Fundazioen Euskal Konfederazioari dirulaguntza izendun bat eman zitzaion, EAEko fundazioek 2022ko eta 2023ko ekitaldietan egin beharreko jardueretarako prestakuntza-jarduerak finantzatzeko eta legezko betebeharrak betetzen laguntzeko. FUNKOrekiko lankidetza-esparru horretan, 2022an zehar, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak parte hartu du erakunde horrek antolatutako 4 lan-jardunaldiren antolaketan.

*En 2022 se concedió una subvención nominativa a la Confederación Vasca de Fundaciones (FUNKO), para financiar las actividades formativas y favorecer el cumplimiento de las obligaciones legales, de las fundaciones vascas para las actuaciones a realizar en el ejercicio 2022 y 2023. En dicho marco de colaboración con FUNKO, a lo largo de 2022 la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos ha participado en la organización de 4 jornadas de trabajo.*

## 8. ESKAINITAKO ZERBITZUAK PROZEDURAK TELEMATIZATUZ MODERNIZATZEA

## *8. MODERNIZACIÓN DE LOS SERVICIOS OFRECIDOS A TRAVÉS DE LA TELEMATIZACIÓN DE LOS PROCEDIMIENTOS*

Administrazio Erregistroen arloan, 2022an hainbat prozedura digitalizatu dira elkargo profesionalei, elkarteei, onura publikodun elkarteei eta fundazioei dagokienez. Halaber, urtean zehar lanerako erabiltzen diren aplikazio informatikoak hobetzen jarraitu da.

*En el área de Registros Administrativos en 2022 se han digitalizado numerosos procedimientos relativos a colegios profesionales, asociaciones, asociaciones de utilidad públicas y fundaciones. Asimismo, a lo largo de todo el ejercicio, se ha continuado mejorando las aplicaciones informáticas con las que se trabaja.*

Azkenik, beste administrazio batzuekiko elkarreragingarritasunean aurrera egin da, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez.

*Finalmente se ha avanzado en la interoperabilidad con otras Administraciones a través del nodo de interoperabilidad NISAE.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 1218 ARAUBIDE JURIDIKOA | *1218 RÉGIMEN JURÍDICO* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERO DE RÉGIMEN JURÍDICO* |

## HELBURUA

1. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN INTERESAK, ARAUAK ETA EGINTZAK DEFENDATZEA

2. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARAUAK ETA EGINTZAK ANTOLAMENDU JURIDIKORA AHALIK ETA GEHIEN EGOKITZEA

## *OBJETIVO*

*1. DEFENSA DE LOS INTERESES, NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO*

*2. LOGRAR LA MÁXIMA ADECUACIÓN AL ORDENAMIENTO JURÍDICO DE LAS NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO*

## BETETZE MAILA

1. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN INTERESAK, ARAUAK ETA EGINTZAK DEFENDATZEA

Auzibide Zuzendaritzan, 2.632 gai berri hasi dira, honako jurisdikzio hauen arabera banatuta: 1.432 administrazioarekiko auzi (horietatik, 1.048 prozedura laburtuak eta 384 ohikoak), 31 pertsonen oinarrizko eskubideak jurisdikzioan babestekoak, 389 doako justiziakoak, 604 lan-arlokoak, 60 arlo zibilkoak, 51 zigor-arlokoak,27 merkataritza-arlokoak, 20 akzioak eskaintzea, 4 Herri-Kontuen Epaitegia eta 4 Auzetegi Nacionala, 5 Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtso, 5 Aldebiko Batzordearen akordioak.

2. EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ARAUAK ETA EGINTZAK ANTOLAMENDU JURIDIKORA AHALIK ETA GEHIEN EGOKITZEA

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan 169 txosten eta kontsulta eskatu dira 2022an. Horiez gain, 2021ean sartu ziren baina 2022an jakinarazi ziren espedienteak ere badaude (11). Ondorioz, 2021ean guztira 180 eskariri eman behar izan zaie arreta.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. DEFENSA DE LOS INTERESES, NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO*

*En la Dirección de lo Contencioso se han iniciado 2.632 nuevos asuntos, distribuidos según jurisdicciones: 1.432 Contencioso-Administrativa (de los cuales 1.048 procedimientos abreviados y 384 ordinarios), 31 de protección jurisdiccional de los derechos fundamentales de la persona, 389 de Justicia Gratuita, 604 de Laboral, 60 de Civil, 51 de Penal, 27 de Mercantil, 20 Ofrecimiento de Acciones, 4 Tribunal de Cuentas, 4 Audiencia Nacional, 5 Recursos de Inconstitucionalidad, 5 Acuerdos de Comisión Bilateral.*

*2. LOGRAR LA MÁXIMA ADECUACIÓN AL ORDENAMIENTO JURÍDICO DE LAS NORMAS Y ACTOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO*

*En la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo han sido solicitados 169 informes y consultas en 2022. Además de éstos están los expedientes con entrada en 2021, pero que fueron informados en 2022 (11). Consiguientemente en 2021 han debido ser atendidas un total de 180 solicitudes.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1219 EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN DATUAK BABESA | *1219 PROTECCIÓN DE DATOS ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA CAE* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| EAEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIA | *DELEGADA DE PROTECCIÓN DE DATOS DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DE LA CAE* |

## HELBURUA

1. EMAKUMEEI ETA GIZONEI DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEAK BALIATZEKO ETA DATUON JARRAIPENA ETA KUDEAKETA GAUZATZEKO ERRAZTASUNAK EMATEA

2. BERDINTASUNA SUSTATU ETA ERANTZUKIZUN PROAKTIBOKO EGINTZAK EGITEN DIRELA ETA TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROAN GARDENTASUN-NEURRIAK EZARTZEN DIRELA BULTZATZEA, HAINBAT ARDURADUNEKIN LANKIDETZAN

3. DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN EGINKIZUNA BETEZ ANTOLAKUNTZA ERAGINKOR ETA EFIZIENTEA ERATZEA

## *OBJETIVO*

*1. FACILITAR EL EJERCICIO DE DERECHOS RELATIVOS A LA PROTECCIÓN DE DATOS POR PARTE DE MUJERES Y HOMBRES, ASÍ COMO SU SEGUIMIENTO Y GESTIÓN*

*2. IMPULSAR EN COLABORACIÓN CON LAS Y LOS DIFERENTES RESPONSABLES LA IMPLANTACIÓN DE MEDIDAS DE TRANSPARENCIA CON RESPECTO AL REGISTRO DE ACTIVIDADES DE TRATAMIENTO Y LA REALIZACIÓN DE ACCIONES DE RESPONSABILIDAD PRO ACTIVA Y PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD*

*3. CONFIGURAR UNA ORGANIZACIÓN EFICAZ Y EFICIENTE EN EL CUMPLIMIENTO DE LA MISIÓN DE LA DELEGADA DE PROTECCION DE DATOS*

## BETETZE MAILA

1. EMAKUMEEI ETA GIZONEI DATUAK BABESTEKO ESKUBIDEAK BALIATZEKO ETA DATUON JARRAIPENA ETA KUDEAKETA GAUZATZEKO ERRAZTASUNAK EMATEA

1. Datuak babesteko arduradunaren jarduerari buruzko informazioa zehaztu eta webgunean argitaratzea, eta hark herritarrekin dituen harremanak kudeatzea:

EAEko Datuak Babesteko ordezkariaren webgunean (https://www.euskadi.eus/datu-babesa) eskuragarri dago herritarrei datu pertsonalak babesteko eskubideak baliatzeko prozedura.

Datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozedura herritarrek eskura dezakete, bai telematikoki, bai aurrez aurre.

Datu pertsonalen arloko eskubideak baliatzeko 526 eskaera aztertu eta kudeatu dira. Tratamendu-arduradunek (erakundeek) eskaerei erantzun diete Tramitagune bidez, datu babesaren arloko eskubideak

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. FACILITAR EL EJERCICIO DE DERECHOS RELATIVOS A LA PROTECCIÓN DE DATOS POR PARTE DE MUJERES Y HOMBRES, ASÍ COMO SU SEGUIMIENTO Y GESTIÓN*

*1. Definir y publicar en la web la información relativa a la actividad de la DPD y gestionar su relación con las ciudadanas y ciudadanos:*

*Está disponible en la página web de la Delegada de Protección de datos de la CAE (https://www.euskadi.eus/proteccion-datos), el procedimiento de Ejercicio de derechos en materia de protección de datos personales para ciudadanos y ciudadanas.*

*Este procedimiento es accesible para la ciudadanía tanto de modo telemático como presencial y permite ejercer los derechos en materia de protección de datos personales.*

*Se han analizado y gestionado 526 solicitudes de ejercicio de derechos en materia de datos personales. Los respectivos responsables de tratamiento (organismos) han dado respuesta a dichas solicitudes*

baliatzeko prozedura erabiliz.

Datuak babesteko ordezkariaren aurrean 25 erreklamazio jaso dira, eta aztertu eta erantzun egin dira.

Beraz, guztira 551 kontsulta kudeatu dira.

Kontsulta horietatik, %33a emakumeek egin dituzte eta %66a gizonezkoek.

Ez da jaso sexu-identitateari, sexuari edo generoari buruzko kontsultarik. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekin lotutako kontsultarik ere ez da jaso.

2. Datuak babestearen gaineko eskubideak baliatzeko eredu homogeneoak zehaztu eta erraztea, genero-ikuspegia txertatuta.

Eskubideak baliatzeko 5 eredu sortu dira, eta erreferenteen eskura jarri, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko eskaerei erantzuteko orduan tratamendu-arduradunen lana errazteko.

Sortutako eredu guztiak genero-ikuspegia hartzen dute kontuan.

2. BERDINTASUNA SUSTATU ETA ERANTZUKIZUN PROAKTIBOKO EGINTZAK EGITEN DIRELA ETA TRATAMENDU-JARDUEREN ERREGISTROAN GARDENTASUN-NEURRIAK EZARTZEN DIRELA BULTZATZEA, HAINBAT ARDURADUNEKIN LANKIDETZAN

1. Datuak babesteko ordezkariak EAEko tratamendu-arduradunekin izango duen harremana zehaztea:

Erreferenteekin 42 bilera egin dira zalantzak argitzeko.

Datuak babesteko erreferenteei zuzendutako prestakuntza-ikastaro bat eman da (HAEE).

Datuak babesteari buruzko oinarrizko hiru ikastaro (2 gaztelaniaz eta bat euskaraz) eman dira EAEko Administrazio Publikoko langileentzat. (HAEE)

Datuak babesteko oinarrizko kontzeptuei buruzko online 12 prestakuntza-saio eman dira, lau ordukoak (bi egunetan banatuta), EAEko Administrazio Publikoko langile guztientzat. Euskaraz zein gaztelaniaz eman dira.

Beraz, prestakuntza-planean 16 prestakuntza-jarduera egin dira guztira, eta 424 pertsonek jaso dute prestakuntza.

Datuak babesteko batzordearekin 2 koordinazio-ekintza egin dira (arriskuen analisiari eta Datuen Babesaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko kontsultak)

Lau bilera egin dira pribatutasun-arduradunekin.

Datuak babesteko erreferenteek egindako 136 barne-

*utilizando el procedimiento de Ejercicio de derechos de Tramitagune.*

*Se han recibido 25 reclamaciones previas a la Delegada de protección de datos y se han analizado y respondido.*

*Por lo tanto, en total se han gestionado 551 consultas.*

*De estas consultas, el 33% han sido hechas por hombres y el 66% por mujeres.*

*No se han recibido consultas relativas a la identidad sexual, sexo o género. Tampoco se han recibido consultas relacionadas con víctimas de violencia contra las mujeres.*

*2. Definir y facilitar modelos homogéneos para el ejercicio de derechos relativos a la protección de datos con enfoque de género.*

*Se han creado 5 modelos para el ejercicio de derechos y se han puesto a disposición de los y las referentes para facilitar la labor de los responsables de tratamiento a la hora de responder a las solicitudes de ejercicio de derechos en materia de protección de datos.*

*Todos los modelos creados incluyen la perspectiva de género.*

*2. IMPULSAR EN COLABORACIÓN CON LAS Y LOS DIFERENTES RESPONSABLES LA IMPLANTACIÓN DE MEDIDAS DE TRANSPARENCIA CON RESPECTO AL REGISTRO DE ACTIVIDADES DE TRATAMIENTO Y LA REALIZACIÓN DE ACCIONES DE RESPONSABILIDAD PRO ACTIVA Y PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD*

*1. Definir la relación de la DPD con las y los Responsables de tratamiento de la CAE:*

*Se han realizado 42 reuniones con las personas referentes de protección de datos para resolver dudas.*

*Se ha impartido un curso de formación dirigido a referentes de protección de datos. (IVAP)*

*Se han impartido tres cursos básicos sobre protección de datos (dos en castellano y uno en euskera) dirigidos a trabajadores y trabajadoras de la Administración Pública de la CAE. (IVAP)*

*Se han impartido 12 sesiones formativas online de cuatro horas de duración (repartidas en dos días), sobre conceptos básicos de protección de datos dirigido a todo el personal de la Administración Pública de la CAE. Se han impartido tanto en euskera como en castellano.*

*Por tanto, el total de actividades formativas realizadas en el plan de formación han sido 16 y han recibido formación 424 personas.*

*Se han realizado 2 acciones de coordinación con el Comité de Protección de Datos (consultas relativas a análisis de riesgos y EIPD)*

*Se han celebrado 4 reuniones con los responsables de privacidad.*

*Se han respondido 136 consultas internas, realizadas*

kontsultari erantzuna eman zaie.

Segurtasun eta Pribatutasun Korporatiboko Batzordea behin bildu da aurten.

2. EAEn datuen tratamenduaren arloan ezarritako prozesu eta agiriak estandarizatzea:

Bideozaintzako kartelen ereduak sortu dira, erakunde bakoitzari egokitutakoak eta informazio-klausulekin. Bi eredu berri sortu dira. Web-orrian argitaratu dira, www.euskadi.eus/bideozaintza helbidean. Dokumentu guztiek hizkuntza inklusiboa erabiltzen dute.

3. DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN EGINKIZUNA BETEZ ANTOLAKUNTZA ERAGINKOR ETA EFIZIENTEA ERATZEA

1. Datuak babesteko ordezkariaren jarduera (pribatutasun-neurrien arduradunen eta solaskideen nahiz erreferenteen kontrola, eskubideak baliatzearen kontrola, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan gaien kontrola) betetzeko orduan erraztasunak jarriko dituen kudeaketa-sistema ezartzea:

Tratamendu-jarduerak kudeatzeko aplikazioa ezarri da, datuak babesteko erreferenteak erabiltzen dutena.

Tratamendu-jarduerak sistematikoki eguneratzen dira tratamendu-jardueren erregistroan, erakundeetan sortzen diren aldaketetara egokituta. Gaur egun 794 tratamendu-jarduera daude.

Tratamendu-jardueren erregistroa web-orri honetan dago argitaratuta: https://www.euskadi.eus/tje/

*por referentes de protección de datos.*

*El comité de Seguridad y Privacidad Corporativa se ha reunido una vez durante este año.*

*2. Estandarizar los diferentes procesos y documentos implementados en la CAE en materia de tratamiento de datos:*

*Se han creado modelos de los carteles de videovigilancia con sus cláusulas informativas adaptados a cada organismo. En concreto se han publicado dos nuevos modelos. Se han publicado en la dirección www.euskadi.eus/videovigilancia de la página web. Todos los documentos utilizan un lenguaje inclusivo.*

*3. CONFIGURAR UNA ORGANIZACIÓN EFICAZ Y EFICIENTE EN EL CUMPLIMIENTO DE LA MISIÓN DE LA DELEGADA DE PROTECCION DE DATOS*

*1. Establecer un sistema de gestión que optimice el cumplimiento de la actividad del DPD (control de interlocutores-responsables de medidas de privacidad, referentes, control de ejercicios de derechos, control de asuntos ante la AVPD):*

*Se ha desplegado la aplicación para la gestión de las actividades de tratamiento y ésta es utilizada por las personas referentes de protección de datos.*

*Se actualizan sistemáticamente las actividades de tratamiento en el registro de actividades de tratamiento adaptándose a los cambios que surgen en las organizaciones. Actualmente existen 794 actividades de tratamiento.*

*El registro de actividades de tratamiento está publicado en la web en la siguiente URL: https://www.euskadi.eus/rat/*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 4712 ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN HIZKUNTZA NORMALKUNTZA | *4712 NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 04 GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUA | *04 GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO* |
| FUNTZIO PUBLIKOAREN ZUZENDARIA | *DIRECTOR DE FUNCIÓN PÚBLICA* |

## HELBURUA

1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEA

## *OBJETIVO*

*1. NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA*

## BETETZE MAILA

1. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEA

Herri Ardularitzaren Euskal Erakunde autonomoak bere programan adierazitako helburu berberak ditu programa honek.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

*1. NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA*

*Tanto los objetivos como el grado de cumplimiento de este programa son los señalados en la del Organismo Autónomo Administrativo Instituto Vasco de Administración Pública.*